


Herririk Herri | 71

Alkatearen kontrako salaketa atzera botatzeko eskatu diote Atxondoko EAJri

Ekonomia | 101

Mapfreko behargin baten kaleratze "bidebakoa" salatu du asteen ELAK



Berbaz | 191

Roman Bengoa: "Nekazaritza lurrak gehiago babestu beharko lirateke"

Igerileku berriak zabalik astelehenetik aurrera

> Meca eta Oribe gonbidatu zituzten, martitzenean, inaugurazio ekitaldira

> Datorren astean izango dituzte durangarrek erabilgarri igerilekuak

2



Igeriketa saioak antolatu zituzten igerileku berriak ezagutzera emateko. Iban Gorriti

Suhiltzaile etxe berria inauguratu dute Iurretan

Iurreta • Bizkaiko suhiltzaile parke-rik handiena inauguratu zuten martitzenean Iurretan. Ekitaldian, besteak beste, Iñaki Totorikagunea Iurretako alkateak eta Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak parte hartu zuten. Suhiltzaileek sute baten simulazioa egin zuten.

3

Traña-Matienako Jubilatuen Etxea inauguratu dute

Abadiño • Traña-Matienako Osasun Zentroa handitzeko jubilatuen egoitza behin-behinean eskolen aldameneko eraikinerak lekualdatu dute. Inaugurazioa eguaztenean egin zuten. Auzoko hainbat jubilatuturatu ziren ekitaldira Jubilatuen Etxe berria ezagutzeko.

6

Arruabarrenaren argazki eta gogoetak

KULTURA • *Gertukoak-Ausencias* izenburua dauka Jesus Mari Arruabarrena argazkilari garaitarraren testuak eta argazkiak batzen dituen liburua. Liburua esku artean elkar-tu gara beragaz Garaiko plazan.

13

Mendibeltz eta Elorrio igoeraren bila

KIROLAK • Mendibeltzek areto futbolearen eta Elorriok futbolearen igoera lortu dezakete asteburu honetan. Durangoko gizonen zein Elorrioko emakumeek lehenengo erregionale-igoko lukete jardunaldiko euren partiduak irabaziz gero.

25

• Elorrio

Kainabera maiatzaren zehar hitzaldi zikloa antolatuko du

7

• Otxandio

Parte-hartzea bultzatuko du Euskara Batzordeak

7

• Mallabia

Herritarren harrera beroa Jasokundeko abesbatzari

8



BATXILERGOAK 2010-2011

ZATOZ GURERA!! INFORMA ZAITEZ

Kuruzaga, 1 - DURANGO - Tel.: 94 681 00 50

sanjose@jesuitak-durango.net www.jesuitak-durango.net

ISO 9001:2000

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Meca eta Oriberen bataioa jasota inauguratu dituzte Landakoko igerileku berriak

Hainbat agintari, kirolari eta pertsona ezagun batu zituen martitzeneko ekitaldiak



David Meca, Richard Oribe eta hainbat elkarte eta insituziotako ordezkariak batu ziren. Iban Gorriti

Astelehenean erabilgarri egongo dira azpiegiturak

Astelehenetik aurrera zabalduko dizkiete herritarrei azpiegitura berriak. Beheko solairuan, besteak beste, kafetegia, aldagelak, kirol ugaitarako aretoa eta igerilekuak daude.

Kirolguneko zazpi igerilekuetatik bi erdi-olinpikoak dira. Olgetarako eta umeentzako ontzi bana eta hidromasajedun zein bestelako erabileretarako beste hiru ontzi daude.

Lehenengo pisuan spinninggela, begiraledun fitness gela eta igerilekuko harmailak daude, besteak beste. Fitness eremuak hainbat motatako 120 bat gailu ditu.

Spinbyke aretoak 80 metro karratu ditu, eta gaur egun 35 bizikleta ipini dituzte. Guztira, 45 spinbyke ipintzeko tokia dago.

Mañaria erreka gaineko biaduktua egiten hasi da Adif

572 metroko luzera eta 33 metroko garaiera izango du, eta 11 zutabek sostengatuko dute

Adif Trenbide Azpiegituren Administrazioak Mañaria erreka gainetik joango den biaduktua eraikitzeari ekin dio asteon, espainiar gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan daukan delegazioak jakinarazi duenez. Egiten hasi berri diren zubi hori Abiadura Handiko Trenaren Abadiño-Durango tarteari dagokio, hain zuzen ere.

Durangotik Mañariara doan errepidea gainetik zeharkatuko duen zubi horrek 572 metroko luzera izango du, eta ia 33 metroko garaiera (puntuari garaienean).

Biaduktua Abadiño-Durango tarteko zatian dago; guztira, tarte horrek 3.520 metroko luzera izango du

Zubiaren 14 metroko zabaleran Abiadura Handiko Trenaren zatiak bide bi egingo dituzte

Proiektuan jasotzen denez, 11 zutaberen gainean sostengatuko da. Biaduktua 14 metroko zabalerarekin izango du eta espazio horretan Abiadura Handiko Trenaren zatiak bide bi eraikiko dituzte.

3,52 kilometroko luzera Abadiño-Durango tramua 3,52 kilometroko luzera izango du; tarte horretako zati den Eguzkiza tunelaren (723 metro) bitartez sartuko da Durangon. Sustapen Ministerioak, Adifen bitartez, 2009ko ekainaren 22an hasi zituen tunel horren hegoaldeko ahoa zuzaltzeko lanak.

Ondoren, Mañaria zubia (516 metro izango ditu) igaroko du eta, segidan, Mendigain tunelean barrena (1.066 metro) sartuko da. Adifek 2009ko irailaren 18an ekin zion, ohiko metodoekin, tunel hori zuzaltzeari. Azkenik, Durangotik igaroko den trenbidearen azken zatian Larrinagatzu zubia (66 metro) eraikiko dute, proiektuaren arabera. ■ J.D.

Durango eta Durangaldeko hainbat alkate, zinegotzi eta erakundetako ordezkari batu zituen martitzeneko igerileku berrien inaugurazioak. David Meca eta Richard Oribe igerilariak ere bertan izan ziren.

"Gaztetan horrelako igerilekuetan aritzeko aukera izan banu!", esanez goraitu zituen David Meca igerilari ezagunak inauguratu berri zituzten igerilekuak. "Badakit denbora luzean zain egon zaretela, baina aurrerantzean gozatzea bakarrik geratzen zaizue", animatu zituen bertaratu zirenak. Oribe igerilari paraolimpikoari ere asko gustatu zitzaizkion azpiegitura berriak; donostiarrek estreinatu zituen ofizialki joan-etorri bat osatuz.

D.Meca: "Denbora askoan zain egon zarete, eta orain gozatzeko sasoia iritsi da"

Tabirako igerilekuak inauguratu zituen Javier Berasategik ere parte hartu zuen ekitaldian

Aitziber Irigoras Durangoko alkateak proiektu hau aurrera eramateko lan egin duten guztiak gogoratu zituen, esker onez; Pilar Ardanza eta Juan Jose Ziarrusta alkate ohiak, besteak beste.

Beste gonbidatu berezietako bat Javier Berasategi izan zen. Orain 43 urte Tabirako igerilekuak inauguratu zituen, eta inaugurazio ekitaldiko berbaldean sasoi hartako hainbat kuriositate gogoratu zituen.

Inaugurazio formalaren ondoren, hainbat erakustaldi eskaini zituzten igerilekuetan. Richard Oribe izan zen igerile-

kuak probatzen lehenengoa. Segidan, Oskar Vila abadiñarra –Galdakaoko klubean dabil– eta Portugaletako taldea erreleboak ari ziren igeriketako estilo ugariak erakutsiz. Ondoren, Sestaoko taldekoek igeriketa sinkronizatuko saioa eskaini zuten. Bertarako zirenek gogotik txalotu zituzten erakustaldiak. ■ J.D.

KUOTAK

Mota biko abonoak daude: azpiegitura osoa erabiltzea baitmentzen dutenak eta banan banakoak.

Azpiegitura guztirako abonoa **45 euro** da hileko, eta erabiltzaileak honako zerbitzuak erabili ditzake: udako igerilekuak, igerileku klimatizatuak, fitness gela, rokodromoa, padel/tenis pista (hilean ordu bateko mailegua) eta hainbat kurtso. Diru-laguntzak ere aurrekusi dituzte:

- 25 urtetik behera dituzten ikasleak: **%20**.
- Langabetuak: **%25**
- 65 urtetik gorakoak (15:00ak arte): **%35**
- Pertsona gutxiak: **%20**

Durangon errolatuta ez dauden edo Durangon lan egiten ez dutenak **%30 gehiago** ordaindu beharko dute.

Banan banako abonoen kasuan udako igerilekuak erabiltzeko 10 paseko txartela **22,5 euro** da. Igerileku klimatizatuaren kasuan **30 euro**. Kasu horretan ere diru-laguntzak daude; familia ugarietarako, besteak beste. Igerikuen urteko familia kuota 165 euro da; banakoa, berriz, 110 euro. Bonifikazioak ere egongo dira.

Merkataritza birgaitzeko plana gauzatzeko eskatuz

PSE-EEK eta Aralarrek Planak jasotzen dituen ekintzak egiteko eskatu zuten mozio batean

Merkataritza Birgaitzeko Plan Berezian jasotzen diren ekintzak gauzatzeko eskatu zuten PSE-EEK eta Aralarrek, mozio bidez, azken udalbatzarrean. Aho batez onartu zuten mozioa. PSE-EEKo zinegotzi Pilar Riosen esanetan, "lehe-

PSE-EEren ustez Planak lehen sektorea indartzeko "ekintza interesgarriak" jasotzen ditu

Aralarren esanetan zerbitzuek "apustu estrategikoa izan behar dute Durangon"

nengo sektorea indartzea beharrezkoa da, eta Planak ekintza interesgarriak proposatzen ditu Durangoko komertzioarentzat eta Durangoko herritarrentzat onak izango direnak".

Aralarreko zinegotzi Dani Maezturen esanetan, "zerbitzuek apustu estrategikoa izan behar dute Durangon, eta eremu horretan sartzen dira merkataritza eta ostalaritza". Horretarako, "Planean agertzen diren ekintzak aurrera eramatea ildo horretako urrats garrantzitsua ematea izango litzateke", Maezturen arabera. Azken batean, helburua "merkataritza bultzada ematea" dela azaldu zuen. ■ J.D.

DIURRETA

Bizkaiko suhiltzaile parkerik handiena dena inauguratu zuten martitzenean

Parke berria barrutik ikustera gonbidatu zituzten martitzenean hedabideak

Bizkaiko Aldundiaren suhiltzaile-etxeen foru sareko parkerik handiena da lurretan joan zen martitzenean inauguratu zutena. Besteren artean, Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahal-dun nagusia eta Iñaki Totorikaguena lurretako alkatea izan ziren inaugurazio ekitaldian.

Parkeko 53 suhiltzaileek hiru aste daramatzate lurretako parkean beharrezko baina komunikabideentzako suhiltzaile parkean -20.129 metro karratuko azalera du, guztira- zeharreko bisita eta sute baten simulazioa egin zituzten martitzenean. Bilbao ahal-dun nagusiak inaugurazio ekitaldian azpimarratu zuenez, "teknologia

berrienak dauzka lurretako parke berriak". Ibilgailuentzako gara-jeak, idazkaritza zein suhiltzaile-entzako mantenimendu fisikorako gimnasioak dauzkate eraikinaren beheko solairuan, eta zaintzan daudenerako logela zein jantokiak eraikinaren goiko solairuan. Bestalde, entrenamendurako zein maniobra bereziak egiteko patioa eta eraikin bat ere badauzkate.

Durangaldeko hamabi herri-tako larrialdiei zein Bizkaian ger-tatutako suhiltzaile "parke berriaren kokapen estrategikoa" azpimarratu dute Aldundiaren ordezkariak aurkezpenean, "A8 autopis-taren ondoan dagoelako".

Larrialdiei erantzuteko irtee-rak egiteko, bestalde, hamar ibil-gailu dauzkate parkean. ■ I.E.

"Sinatutako akordioak" betetzea aldarrikatu zuten

ELA, LAB, CCOO, UGT, CSIF-LSB eta USO sindikatuek apirilaren 29rako Bilbon deitua zuten kontzentraziorako deia egin eta "sinatutako akordioak errespetatzea" eskatu zuten inaugura-zio ekitaldiak iraun zuen bitar-

tean parkearen kanpoaldean kontzentratutako hainbat lagun-ek. "Zerbitzuak itxi, ordezkapenak murriztu eta akordioak betetzen ez direnean, suhiltzaile parkeetan ospakizunak egitea ez dugu ulertzen", salatu zuten.



Sute baten simulakroa egin zuten ekitaldian. I.E.

Ortu ekologikoak urrian esleitzea espero du Udalak

Ortuetako bat errentan hartu gura dutenek izena emateko epea irailean zabaltzea aurreikusit dute

Ortu ekologikoak atontzeko lanen lehenengo fasea amaitzeaz dauka lurretako Udalak Iturburuko lan-dan; dagoeneko orturako tresnak gordetzeko txabola ere eraikita dago. Datozen asteetan esleitzeko dute ortuen ingurua hesitzea hel-buru duen lanen bigarren zatia.

Ortuei buruzko galderak eginez eta interesa agertuz iurretaz askok deitu dute Udalera

Udal Gobernuaren aurreikus-penen arabera, irailean zabaldu-ko dute ortuetako esleipenean parte hartu ahalizateko izen-ema-tea. Guztira, 42 ortu atonduko dituzte, eta alkate jeltzaleak azal-du duenez, horietariko 2 herriko ikastetxei eskainiko dizkiete.

Ortuei buruzko galderak egi-nez eta interesa agertuz iurretaz askok Udalera deitu izan duela azpimarratu zuen Totorikague-nak, eta, horren arabera, herritar asko izango dira izena emango dutenak. Ortuen erabilera arautze-ko ordenantza moldatzeko lanari ekingo diote Udalean orain. ■ I.E.

Autoen oinarritzko mekanikari buruzko ikastaroa

Maiatzean eta ekainean, marti-tzenetan izango diren saioetan, autoen oinarritzko mekanikari buruzko ikastaroa eskainiko dute *Repara Tu Vehículo* taldearen lurretako tailerrean. Autoen kon-ponketarako oinarritzko forma-zioa eskainiko dute datozen hila-bete bietan, martitzenetan egin-go dituzten saioetan. Besteak beste, bidaia baten aurretik egi-

tea gomendatzen duten autoaren azterketa orokorra zelaz egin ika-siko dute ikastaroaren parte-har-tzaileek. Olioaren, iragazkien zein gurgipen aldaketa egitan eta gur-piletako zulaketak konpontzen ira-katsiko diete, besteak beste. Autoe-tako argiak edo atzerako ispiluak aldatzen ere ikasiko dute taile-rreraren, konponketa txikiak egiteko oinarritzko baliabideak eskuratuz.

Autoaren azterketa orokorra egiteko baliabideak eskainiko dizkiete parte-hartzaileei

- DBH (B eta D ereduak)
- GELA EGONKORRA (B eta D ereduak)
- BATXILERGOAK:
 - Arteak (D ereduak)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (A eta D ereduak)
 - Zientziak eta Teknologia (A eta D ereduak):
Aukera: Hirueleduna ingelesez
- ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA
- HEZIKETA ZIKLOAK
 - Erdi mailakoa: Landa Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D ereduak)
 - Goi mailakoa: Gorpuz eta Kirol Jardueren Animazioa (D ereduak)

Institutua
Durango

Fra Juan de Zumarraga, 23
48200 DURANGO (Bizkaia)
Tel.: 94 657 10 60 - 94 681 73 25
Fax: 94 681 02 58
e-posta: info@durangokoinstitutua.com
web: www.durangokoinstitutua.com

ATXONDO

Alkatearen kontra egindako salaketa atzera botatzeko eskatu diote EAJri

Zinegotzi jeltzaleek astebetean salaketa bertan behara utzi ezean, alkateak epaitegietara joko du

Duela astebete Atxondoko EAJko zinegotziek David Cobos alkateari pisu tutelatu batean bizitzea leporatu zioten, prentsaren bitartez. Salaketa hori gezurtatu egin du ezker abertzaleak, eta EAJri atzera egiteko eskatu dio: "Astebeteko epean salaketa zuzentzen ez badute, legezko neurriak hartuko ditugu".

Aipatutako pisu tutelatuan emakume bat bizi izan da. Joan zen astean EAJk salatu zuen emakume hark pisua utzi zuela, eta orain alkatea eta bere familia bizi direla han, "Udalaren kontura". Atxondoko ezker abertzaleak azaldu duenez, emakume horri ezgaitasuna balioetsi diote eta erresidentzia batean bizi da orain. Pisua hutsik dagoela eta Udalak arrendamendu kontratua amaitu due-

la azaldu du ezker abertzaleak: "Udalak orain ez dauka pisu horrekin loturarik; gizarte zerbitzuetan ez dago tutelatzeko eskabiderik, eta ez daukagu baliabiderik pisu huts bat mantentzeko".

D.Cobos: "Egoera aztertu barik horrelako salaketak egitea ezin daiteke onartu"

Gobernu taldeak gogor kritikatu du EAJ: "Salaketa larriek alkateari eta bere familiari min ematea beste helbururik ez dute, eta baliteke legearen aurkakoak izatea". Epaitegietara jotzeko prest dago Cobos: "Egoera aztertu barik horrelako salaketa egitea ezin daiteke onartu".



Hainbat herritarrek babesa erakutsi gura izan zioten alkateari eguaztenean egindako agerraldian.

"EAJren jarrera"

Atxondoko Udal Gobernuan daudenetik, EAJren aldetik "oposizio itxia" jaso dutela nabarmendu dute Gobernu Taldeko zinegotziek: "Abiatutako egitasmo guztiei oztopoak besterik ez dizkiete ipintzen". Hori dela-eta, Atxondoko EAJko afiliatuei ere dei egin gura izan die-

te, alderdiko arduradunei bide horretatik ez jarraitzeko eskatzeko: "Ziur gaude EAJ barruan herritar asko dagoela bat ez datorrena euren bozeramaileek adierazita-koagaz, eta gurago luketenak herriaren aldeko ekarpenak egiten eta udal arduradunekin lankidetzan ibiliko balira". ■ A.U.

Udalak pisu tutelatuagaz zeukan kontratua eten egin zuen bertan bizi zen emakumea erresidentziara joan zenean

Suteen kontrako ureztodien gaineko ikastaroa maiatzaren 15ean izango da

Iurretako suhiltzaileek emango dute ikastaroa. 11:00etan hasiko da, Arrazolako plazan

Baserrri eremuetan sute bat badago zelan jokatu ikasteko ikastaroa emango dute Iurretako suhiltzaileek maiatzaren 15ean. Apatan, Axpen eta Arrazolan Udalak jarri dituen ureztodiak zelan erabili erakutsiko dute, besteak beste. Arra-

zolako plazan batuko dira ikastaroa emateko, goizeko 11:00etan.

Sute baten, sua pizten deneko hasierako momentuak garrantzitsuak dira su hori menperatzeko. Suhiltzaileak baserrri eremuetara heldu orduko hainbat neurri hartu ditzakete auzokideek, eta baserrri alboetan jarritako ureztodiak lehen minutu horietan laguntzeko balio dezakete. Ahalik eta baserrri gehienetara heltzeko lekue-tan daude ureztodiak. ■ A.U.

Sua pizten denean zelan jokatu erakutsiko dute Iurretako suhiltzaileek



20 ureztodi-kutxa jarri ditu Udalak baserrri alboetan.

ZALDIBAR

Olazarko biribilgunetik industrialdera doan bidea amaitzeko zati bat falta da

Autonomia kaletik Foru kalera doan bideko obra "aurten hasi eta datorren urtean amaituko da"

Industrialdeko bideko lanetan, Olazarko biribilgunetik Autonomia kaleraino doan tartearan lanak martxoaren 31n amaitu zituzten. Idoia Mendiola garai alkateak azaldu duenez, "oraindik industrialderako bidea ez dago guztiz amai-

Lanak amaitzean kamioiak ez dira herri erditik pasatu beharko; industrialdera bide berritik joango dira

tuta, azken zati bat egitea falta da Autonomia kaletik Foru kalera doana; lanak oraindik ez dira hasi, baina aurtengo hasiko dira eta datorren urtean amaitu".

Amaituta dagoen obra zatiak Estatuak tokiko inbertsioetarako bideratzen duen laguntza izan du; 511.000 eurokoa. Egitea falta denak ez du diru-laguntzarik jaso. Zaldibarko alkateak azaldu duenez, "Euskal Herria kalean 90 graduko angelua egiten duen bihurgunea dago eta, beraz kamioiak ezin dira bertatik pasatu".

Lanak amaitzean kamioiak ez dira herri erditik pasatu beharko industrialdera joateko. ■ G.A.

1937an Santamañezarren hildako milizianoak gogoan, Castet Egunean



Domekan Santamañezarrera igo ziren 60 bat lagun, 1937an jauzi ziren miliziano eta gudariak omentzeko. Ekitaldi xume batean, tontorrean ikurrina berria jarri zuten. Jaitsitakoan San Martin plazatik kalejiran joan ziren Castet elkartera. *Eusko gudariak* abestuz amaitu zuten ekitaldia. Deitzaileek bertaratutako eskerrak eman eta "memoria gaurko borrokaren parte dela" adierazi zuten.

GARAI

Zortzi behargin garbiketa eta mantenurako

Datorren astelehenetik aurrera, zortzi behargin hasiko dira Garain lanean, herriko hainbat gune garbitu eta egokitzeko zereginean. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Auzolan programaren baitan jardungo dute beharginok maiatzaren zehar; hiru astez luzatzea aurreikusita dute, udal arduradunek azaldu digutenez.

Egin beharreko lanen artean, San Juan ermitaren zonaldea garbitzea eta frontoi inguruko belarrak moztea daude, esaterako. Udalak bando bidez informatuko ditu herritarrak.



Oso gutxi kostatzen da zure
Renault-aren segurtasuna mantentzea

FRANKIZIA DOHAINIK

EDOZEIN KARROZERIA KONPONKETETAN

Frankizia oparitzen dizugu karrozeria konponketetan, zure aseguru konpainiak aplikatutako ezbehar jakinarazpen bakoitzagaitik 300€ gehienez eta gutxienez 1200€ fakturatzen badira bez-a sartu gabe. 10/07/31-ra arte baliodun eskaintza.

74,5€-TIK

PNEUMATIKO CONTINENTAL BAT*

ERREFERENTZIA	IC/IV IZENDAPENA	PSP PNEUMATIKO BAT
185/60R15	CONTINENTAL PREMIUM CONTACT2	74,5€
205/55R16	CONTINENTAL PREMIUM CONTACT2	84,5€
205/60R16	CONTINENTAL PREMIUM CONTACT2	99,5€

MUNTAIA ETA OREKATZEA DOHAINIK

GAINERA %50 BESTE MARKA BATEKO BIGARREN PNEUMATIKOAN **



*Izakinen amaiera arte baliozko eskaintza. Beste promozioekin bateraezina.

**10/12/31-ra arte baliodun eskaintza, Dunlop, Continental, Goodyear, Pirelli eta Bridgestone pneumatikoetan

www.renaultservicios.es

RENAULT SERVICIOS

ZURE RENAULT-AREN MAILAN
RENAULT BAKARRIK DAGO



GAURSA ARRIANDI 12. IURRETA. TEL. 94 620 33 00

ABADIÑO



Udaleko ordezkariak eta herriko jubilatuak batu ziren ekitaldietan. I.E.

Matienako eskola ondoko Jubilatuen Etxe berria zabalik

Eguazten arratsaldean egin zuten Jubilatuen Etxe berriaren inaugurazio ekitaldia Traña-Matienan

Traña-Matienako osasunzentroa handitu ahal izateko (anbulategiaren alboan Jubilatuen Etxeak hartzen zuen lekua erabili ahal izateko) orain urte bi jubilatuentzako leku berri baten bila jardun zuen Udalak, eta hainbat aukera aztertu ostean Matienako eskolaren aldamenekoari irizti zion gehiengoak egokiena.

Hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak lagatako eskola zaharren eraikinean inauguratu dute asteon Jubilatuen Etxe berria. Talde Independenteko Udal Gobernuak, dena dela, Jubilatuen Etxearen

kokapen hau behin-behinekoa dela eta eraikina etorkizunean berriro Hezkuntza Sailaren jabetzara bueltatuko dela azpimarratu du hainbat bider. Jubilatuen elkartearen behin betiko egoitza, Pierburgenpresaren ondoan eraikiko dituzten etxebizitzaren beheko solairuan egingo ei dute.

Eskolaren aldamenean inauguratu duten eraikinean, ileapaindegia, sukalde, barra eta egongela dituzte jubilatuek aukera, besteak beste. Espainiako Gobernuaren 289.050 euroko diru-laguntzagaz finantzatu dute obra. ■ I.E.

Emakumeentzako eta gazteentzako harrera zentro bi Keralan

2004ko tsunamiak kaltetutako emakume eta gazteei laguntzen dihardu Delgado abadiñarrak

Udalak diruz laguntzen dituen lankidetzarako sei egitasmoetako bat da Alberto Delgado gazte abadiñarrak Indiako Kerala eskualdean aurrera daramana. Gazteentzako eta emakumeentzako bi harrera zentro eraikitze lanak sustatzen dihardu Delgadok.

Lau urte daramatza Alberto Delgadok Indian lankidetzara lana burutzen

Udalak azaldu duenez, Hijos del Amor Misericordioso erlijio-kongregazioak bultzatzen duen egitasmoaren barnean dabil abadiñarra beharrez. Lau urte daramatza Indiako Kerala eskualdean Delgadok, eta familiako zamak dituzten emakumeekin eta 2004ko tsunamiatik eragina jasan zuten gazteekin dihardu lanean.

Abadiñoko Udalak 10.000 euroz lagundu zuela 2009an Delgadoren Keralako egitasmoa jakin eragin du Gobernuak asteon, eta Udalak diruz laguntzen dituen lankidetzarako gainerako egitasmoen berri ere eman du: India, Kuba, Nikaragua, Kuba, eta Kolonbian hainbat elkarte burutzen dabilzan egitasmoak ere laguntzen ditu Udalak.

Udaleko Gizarte Ongizate Arloko Marisa Vázquez zinegotziak azaldu duenez, guztira, 57.040 euroko diru-laguntza zuzentzen du Udalak bateko eta besteko lankidetzara proiektuetara (udal aurrekontuaren %0,7). ■ I.E.

India, Kuba eta Kolonbian hainbat elkarte burutzen dabilzan egitasmoak laguntzen ditu Udalak diruz



Keralako eskualdean burutzen du Delgadok bere lana.

San Prudentzio jaietan sartuta, buru-belarri

Martitzen iluntzean Donien Atxa altxatu zutenetik, bistakoa izan da aste guztian jai-giroa Traña-Matienan. Eguazteneko San Prudentzio Egunean, aurten berreskuratu duten Jai Batzordeak osatutako askotariko ekitaldiak izan dituzte abadiñarrek aukeran.

Oraindik, Matienan egun askotarako dagoen egitaraua eta jaia gura beste gozatzera eta jaietan ere berdintasuna eta errespetua zutabe izatera bultzatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak herritarrek: sexismoaren kontrako gidak eta preserbatiboak banatuko dituzte jaietan.



Juanra de la Cruz

BERRIZ

Adierazi EH: eskubide zibil eta politikoen aldeko ekitaldia maiatzean

Ekimenaren mezua zabaltzeko, berbaz gainera, muntaia artistikoa aurkeztuko dute Berrizen

Adierazi EHk, eskubide zibil eta politikoen aldeko ekimen herritarrek, Bilbon ospatu zuen ekitaldi erraldoian adierazpen bat aurkeztu zuen. Ekimen horren antolatzaileek jakitera eman dutenez, Bilboko adierazpenean "oinarriko eskubide zibil eta politikoen ildotik gure herriak pairatzen duen egoera eta dituen hutsune demokratikoa azpimarratzen dugu". Ekitaldi horretan adierazpen hori Euskal Herrian "barreiatzeko" konpromisoa hartu zuten, "ekimen hau musika, antzerkia, dantza, argia, irudiak eta, batez ere, hitzaren bitartez zabaltzeko gura

dugu". Konpromiso horri jarraituz "muntaia artistikoa" maiatzaren 8an Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko dute, 18:00etan. Muntaiaren Gotzon Barandiaranek idatzitako *Hemen gaude!* gidoian oinarritu dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, ikuskizun horretan, Euskal

"Eskubide zibil eta politikoen inguruan gure herriak pairatzen duen egoera azpimarratzen dugu"

Herriko egoeraz kezkatuta dagoen pertsona batek bere itzalagaz gartzten duen elkarriketaren bitartez, hainbat galdera lutzatzen dizkio entzulegoari: "Non gaude euskaldunok? Zergatik hainbeste zailtasun batera lan egiteko?". Antolatzaileek diotenez, "helburua ez da bakarrik galderak egitea, hainbat erantzun kolektibo ere planteatzen dira-eta".

Antzezleak publikoari esaten dienez, "oztopoak gainditzeko dira, oztopoak jartzen dizkugutenei guk harresiak eraikiko dizkiegu, hitzez, ilusioz, maitasunez..."

Antzezpenaz gainera, hitz hartze txikia egongo da. Antolatzaileek azaldu dutenez, "eskubide zibil eta politikoen, era batean edo bestean, urratuta sentitu dituen pertsona orok bere kezka eta ilusioak, ezinezona eta itxaropena agertzeko momentu bat legez ulertzen dugu". Hainbat esparrutako 10-12 bat pertsona taularatuko dira beraien testigantza eta sentipenak adierazteko. ■ G.A.

ELORRIO

Kainabera gobernuz kanpo-ko erakundeak hitzaldi zikloa antolatu du maiatzeko. Aurten Haiti, Nikaragua eta Israel eta Palestinako errealitatea ezagutzeko aukera eskainiko dute. Hitzaldiak 19:30ean hasiko dira, Iturri kultur etxean.

Maiatzaren 6an, Haiti berba- gai hartuta, hitzaldia emango dute Xabier Madariagak –kazetaria da eta Haitiko lurrikaran berriemaile

Maiatzaren 6an Haitiko lurrikara bertatik bertara ezagututako Xabier Madariaga kazetaria izango da hizlari

Bigarren berbaldian Ima Escribanok Nikaraguari buruz jardungo du Iturri

ibili zena– eta Irune Martínezek –Searso Euskalherria taldekoa–. Urtarrileko lurrikararen ondoren, denbora joan ahala, Haitin gertatu zena apurka ahazten goazela uste du Kainaberak, eta horregatik erabaki dute hango errealitatea eza- gutaraztea. Lurrikaran komuni- kabideek izan zuten papera azal- du eta Haitiren egoeraren inguruko hausnarketa proposatu dute.

Maiatzaren 20an, Ima Escri- bano Kainaberako kideak Nikara- guaren gainean jardungo du. Koo- perantea da bertan, eta, han eza- gututakoa kontuan hartuta, garapen bidean dauden herrial- deen gaineko hausnarketa eragi- tea izango du helburu berbal- di horretan.

Gainera, hitzaldiko astean, maiatzaren 17tik 21era, Iñaki Agi- riano Kainaberako kideak Nikara- guan ateratako argazkien erakus- keta egongo da ikusgai Iturri kul- tur etxeko erakusketa aretoan. Goizeko 09:00etatik iluntzeko 21:00etara bisitatu ahal izango da erakusketa hori.

Palestina eta Israeli buruz

Zikloa Victor Pozas EHuko irakas- learen berbaldiagaz amaituko da maiatzaren 27an. Pozas Hegoa elkarteko kidea da, eta aditua da nazioarteko gaietan. Oraingo hone- tan Palestinako eta Israelgo errea- litatea izango du hizpide. Hango herritarren hartu-emanak zela- koak diren kontatuko du, eta han bizi duten egoera hobeto ulertze- ko gakoak emango ditu. ■ J.D.

Victor Pozas EHuko irakaslea Israel eta Palestinari buruz ariko da maiatzaren 27an

Haiti, Nikaragua eta Palestina berbagai, Kainaberak antolatutako hitzaldietan

Maiatzaren 6, 20 eta 27an dira hitzaldiak Iturri kultur etxean



Victor Pozasek behin baino gehiagotan eskaini ditu hitzaldiak Elorri. Kainabera

Ehun urte bete ditu asteen Ascensión Fernándezek

Martitzenean izan zen bere urtebetetzea eta omendu egin zuten Udalak eta Aldundiak



Ciudad Realen jaio eta 1952an etorri zen Euskal Herrira.

Ascensión Fernándezek ehun urte bete zituen apirilaren 27an, eta omenaldi beroa jaso zuen Udala- ren eta Aldundiaren eskutik. Era- kunde biek oroigarri bana eman zioten, eta Udalak blusa dotore bat ere bai. Bere ilobek beste oroiga- rri bat erregalatu zioten. Aldundiak orain arte mendea bete duten 17 lagun omendu ditu aurten.

Fernández Ciudad Realen jaio zen, eta 1952. urtean etorri zen Elo- rri. Gerra Zibilaren ondoren hiru urtez egon zen Saturrarango kartzelan, errepublikaren alde egiteagatik.

Aldundiak eta Udalak ez ezik bere ilobek ere oroigarri bat oparitu zioten Fernándezi

Bere sasoian, Ondarroako His- toria Zaleak elkarteak elkarriketa- tatu egin zuen Fernández bere testigantza jasotzeko, eta elkarte horretako kideek ere ez zuten hutsik egin omenaldira. ■ J.D.

OTXANDIO

Parte-hartzea bultzatuko du Euskara Batzordeak

Euskalgintzaren inguruko gogoeta bateratua egiteko mintegian 20 bat lagun elkartu ziren

Euskara Batzordeak deitutako *Salda Badago* mintegira 20 bat lagun batu ziren joan zen astean. Mintegian batzordeak aurten garatuko dituen ekintzen berri eman eta euskalgintzaren ingu- ruko gogoeta bateratua egitea proposatu zuten.

Besteak beste, Euskara Batzordearen eta planaren iru- dia berrituko dute, eta parte-

hartzea indartzeko ekimenak gara- tuko dituzte etorkizunean.

Beste helburu batzuk ere jaki- narazi zituzten. Horrela, Euskara- ren Ordenantza garatzea, jolasen bilketa amaitzea, Berbalagun egi- tasmoa sendotzea eta Inkernuz aldizkaria berritzea izango dira aurtengo helburu nagusietako batzuk.

Jakinarazi dutenez, lehenen- go Otxandioko Euskaldunen Sarea josteari ekin diote, Euskara Batzor- dearen ekimenen berri eman, iri- tziak jaso eta hainbat jarduera garatzeko laguntza eskatzeko hel- buruagaz. ■ J.D.


Euskararen Ordenantza garatzea izango da beste helburuetako bat

Hemen agertu gura badozu deitu!



94 621 79 02

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz



A. Urreta
podología

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología
A. Urreta
Jainaga

PODOLOGIA 188. Elkartokidea

▣ MALLABIA



Mallabitarren artean finalak ikusmin handia sortu zuen.

Harrera beroa egin zioten Jasokundeko abesbatzari

‘Oh Happy Day’ saioko finalean parte hartu izana herrikideekin ospatu zuten abesbatzako kideek

Mallabitarrek frontoian jarritako pantaila erraldoiaren bitartez zuzenean ikusi zuten Jasokundeko abesbatzaren ETB1eko *Oh Happy Day* saioko emanaldia. Finalean garaipena

Telebistako saiotik zuzeneko konexioak egin zituzten finalaren gauean

ezin izan zuten eskuratu, Eibar eta Astigarragako taldeekin lehian. Afaritan 400 lagun inguru batu ziren herriko taldea babesteko. Saiotik zuzeneko konexioak egin zituzten herrian bizi zuten giroa ezagutzeko. Abesbatzaren aurreko saiota irudien bilduma ere ikusgai izan zuten. Abesbatzako kideak, txapelketa amaitzerakoan, 01:30ean heldu ziren herrian antolatutako jaian parte hartzera. Taula gainera igoen eta mallabitarren ongietorri beroa jaso zuten hilabeteotan egindako lana eskertu guran. ■ J.G.

▣ IZURTZA

Biribilgunearen proiektuaren bigarren berrikuspena

Asteon bidali du Udalak gasolindegia ondoan egin gura duen biribilgunearen proiektuaren bigarren berrikuspena Bizkaiko Aldundira. Ezker abertzalea alkatetzan dagoenetik —orain 3 urtetik— dihardutela egitasmoa Aldundiak onartu dezan beharrean eta “eskutatako baldintza guztiak betetzen ditugunarren, proiektua beti atzera botatzen digute”, diote Udalean. Teknikariak biribilgunearen plano eta memoriak aurkeztu dituen bakoitzean, Aldunditik jaso duten erantzuna “txikikeriengatik” aldatketak eskatzea izan dela salatu du Udal Gobernuak: “farolak biribilgune barruan barik kanpoan leudekela hobeto, edo belarra barik zementua erabiltzea”, esaterako.

Aldundiaren jabetzakoa den eta herria zeharkatzen duen errepidetik igarotzen diren ibilgailuen kopurua eta abiaduraren arazoari “konponbidea bilatzeko borondatek ez du agertzen Aldundiak”, dio Udal Gobernuak. ■ I.E.



3 urtean dihardute Udalean biribilgunearen proiektua lantzen.

▣ MAÑARIA

Argazkizaleei deia, ekaineko erakusketarako

Azken urteetan Udalak udaberri-rako antolatu izan duen argazki lehiaketarik ez dute aurten antolatuko, Gobernu Taldeak jakinaz duenez. Aurrekontuak aurkeztu zituztenean ere azaldu zuten, krisi ekonomikoaren eraginez

Udalak burutu dituen murrizketen arteko bat da argazki lehiaketarik ez egitea aurten. Lehiaketaren orde, herriko argazkizaleei Udaletik proposatu dietena, Aste Kulturalean zein azoka egunean argazkiak egitea eta ekaineko erakusketan parte hartzea da. ■ I.E.

Herriko argazkizaleei luzatu diete ekaineko erakusketan parte hartzeko proposamena

▣ ABADIÑO

Indarkeria sexistaren aurkako 2.000 gida banatuko dituzte

Udaleko Berdintasun Arloak indarkeria sexistaren aurkako 2.000 gida eta *Beldur barik* lelodun 1.300 insignia banatuko ditu San Prudentzio jaietan. Indarkeriaren aurkako gidak euskaraz eta gazteleraz daude, eta hainbat baliabide ditu neskek eta mutilak indarkeriazko jarrerak bereizi ditzaten, aurrea hartu eta ezabatu ditzaten. Gidaliburuak Abadiñoko institutuan, San Prudentzio eta San Trokaz jaietan ipiniko diren txosnetan, eta taberna batzuetan banatuko dituzte. Horrez gainera, Durangaldeko Amankomunazgoak HIESaren aurka aritzen den T4 elkarteak eman dituen 1.000 preserbatibo banatuko ditu.

▣ BERRIZ

Txakurragazko hartu-eman sustatzeko ikastaroa hastear

Ezagutu hobeto zure txakurra izenburupean, txakurren trebakuntzan zein jabeek txakurragaz izan ohi duten hartu-emanen sakontzeko ikastaroa antolatu dute Kultur Etxean. Ikastaro hori maiatzaren 4an eta 6an egingo dute, 18:30etik 20:30era. Izena emateko azken eguna apirilaren 30a da, Kultur Etxean bertan.

Ikastaroa doakoa da eta euskaraz emango du Alain Maortua irakasleak. Ikastaroan txakurren hizkuntza —lasaitasun seinaleak— jorratuko dute. Txakurkumeei buruz ere ariko dira eta zigorrik bako trebakuntzarako aholkuak emango dituzte, zigorrak izaten dituzten ondorioak adieraziz.

Leioako Txakolinaren Museoa bisitatuko dute hilaren 20an

Udalak pertsona nagusientzako irteera bi antolatu ditu maiatzean eta ekainean. Doakoak dira eta interesatuek Jubilatuen Etxean eman beharko dute izena. Maiatzaren 20an Leioako Txakolinaren Museora bisita gidatua antolatu dute. 15:00etan BBK aurretik irtengo du autobusak. Ekainaren 20an, mendi-ibilaldi irteera antolatu dute Santiago mendira eta Nerbioi ibaiaren sorburura; 09:00etan irtengo du autobusak BBK aurretik.

Azkenik, berriztar guztiei zuzenduta Santiago bideko zati baterako (Lizarra-Los Arcos-Logroño) irteera antolatu dute maiatzaren 22tik 23ra. Kiroldegian eman daiteke izena.

▣ MALLABIA

Jubilatuak Eltziego bisitatzen

Mallabiko Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Eltziego herria bisitatu zuten joan zen asteburuan 49 lagunek. Goizean goizetik irteten eta hamarretakoa egin ondoren, Eltziegoko ermita eta eliza bisitatu zituzten. Gero, herrian zehar paseatu zuten eta bolatokira ere joan ziren.

Egurdian bazkaritara batu ziren jatetxe batean, eta hantxe bertan dantzaldia izan zuten bazkalostean. Egun osoa Eltziegoren eman ondoren, iluntzean bueltatu ziren Mallabira. Datorren martitzenean batzarra egingo du Jubilatuen Elkarteak udara bitarteko ekitaldiak prestatzeko.



goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

BERBAZ >

“Nekazaritzan jarduteko oztopo handiena lur falta da”

Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko beharrean dabil Roman Bengoa berriztarra ENEEK-en

Euskal Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko lehendakaria da Roman Bengoa. Kontseilu horren bete-behar nagusia nekazaritza ekologikoaren arauak bete daitezen lan egitea da. Promozioan eta aholkularitzan ere egiten dute beharra. Euskal Herriko nekazaritzari buruz eta nekazaritza ekologikoari buruz berba egin dugu beragaz.

Transgenikoak eta produktu kimikoak parean dauzkazue nekazaritza ekologikoaren aldeko nekazariak.


Bai. Euskal Herrian, Nafarroan bakarrik daude landaketa transgenikoak, baina badaude jaten ditugun produktuen artean transgenikoak, eta askotan ez dugu jakiten. Asko eta asko ez dira etiketatzen, kantitatearen arabera eta egin den transformazioaren arabera ez daudelako derrigortuta etiketan jartzera; ez da bidezkoa. Kontsumitzaileok jakiteko eskubidea daukagu. Pentsuekin ditugu arazoak guk; gehienbat, kanpotik etortzen dira lehengaiak, eta hor transgenikoekin kutsatuta egoteko arriskua egon daiteke. Hori nekazaritza ekologikoan ez dago onartuta; kopuru oso baxua eduki behar du onartuta egoteko, eta istripu bat izan dela demostratu behar da. Pentsu denak aztertu beharko lirarteke, baina horrek kostu handia dauka.

Jatendena nondik datorren jakiteko kontzientziarik badaukagu?

Kontzientzia edukitzeko, lehenengo eta behin jendeak ezagutu egin behar du zer den gauza bakoitza, eta zer suposatzen duen bertako produktuak jateak eta kanpoko produktuak jateak. Ez bakarrik kanpoko produktuak direlako, kanpoan zelan ekoiztuta dauden eta zer baldintzatan egiten diren ere jakin behar da. Herrialde horietan, askotan kanporako produzitzen dabilta, eta herri horietako jende asko gosez hiltzen daude. Jendeari gauza hauek denak azalduz gero, elementu gehiago izango ditu erabakiak hartzeko.

Zelako bideak ditu nekazaritza ekologikoak bezeroengana heltzeko?

Bideak, asko ez daude, baina badaude. Astero-astero merkatuek hor jarraitzen dute, eta bultzatu egin beharko dira. Gainera, beste hartu-eman batzuk sortzen hasi dira. Talde-kontsumoak sortu dira, adibidez, eta talde horietan nekazariak etxetara joaten dira, zuzeneko salmenta egitera.



“Jaten duguna non eta zer baldintzatan ekoizten den jakin behar dugu”

Merkera eta arinera joateko ohituren aurrean, horrelako formulek arrakasta daukate?

Gaur egungo eredu hori, azken finean, bultzatua izan da instituzioetatik eta agroindustria handietatik. Lehendik ere aldatu badira kontsumorako joerak eta bakoitzaren bizimodua, buelta berdin-berdin eman ahal zaio. Kontsumo-talde horiek garatzen dabilta, eta geroago eta jende gehiago animatzen da.

“Politikan asko erabiltzen dituzte ‘ekologikoa’ eta ‘jasangarria’ berbak. Ekintzak ikusi behar”

Kontuz ibili behar dugu, moda batean geratzea gura ez badugu. Hartu-eman horiek mantentzeko zaindu egin behar dira.

Instituzioak aipatu dituzu. ENEEK Eusko Jaurlaritza aholkatzeko sortu zen. Zer jarrera ikusten duzu politikarien artean? Hitzez, oso ona. Asko erabiltzen dituzte “ekologikoa”, “jasangarria” eta horrelako berbak. Hitzez dena da ekologikoa, dena da jasangarria...

Roman Bengoa •

Nekazaria

- Sarrian bizi da (Berriz)
- Euskal Nekazaritza eta Elikadura Kontseiluko lehendakaria da

baina hitzetatik ekintzetara pasatzea beste gauza bat da. Egia da Eusko Jaurlaritza berriak denbora gutxi daroala, eta ikusi egin beharko dela ea hitzetatik ekintzetara pasatzen direnean zer jarrera hartzen duen. Estatu mailan, baina, alderdi bera dago Gobernuan, eta ikusita zer jarrera daukan transgenikoekin, ez dakit oso baikor egoteko arrazoirik daukagun.

Nekazariak momentu honetan zer ardurara nagusi daukazue?

Hemen, eta mundu osoan, nekazariok gure ingurukoentzako produzi-tzea gura dugu. Egongo dira produktu batzuk esportaziorako izango direnak, eta hor baldintzak landu egin beharko dira, baina azken finean gure inguruan kontsumitzeko ekoiztu gura dugu. Horretarako baliabideak behar ditugu, eta, esaterako, orain desagertzen ari diren denda txikiak bultzatzea beharrezkoa da. Bestalde, orain gazte asko dago nekazaritzan jarduteko gogotsu. Baina, oztopo handiak dauzkate hasteko. Lur gutxi dago. Lurren banku moduko bat sortu da orain, eta ikusiko da, baina nekazaritzarako lurak babesten ez badira, akabo: hemen ez dago ez nekazaritza ekologikorik, ez ezer! Fabriketako teila-tuetan egin beharko dugu nekazaritza hidroponikoa. Udaletxe denek lur industrialak ondo babestuta eta ondo kokatuta dauzkate euren lekuetan; nekazaritzarako lurrekin gauza bera egin daiteke. Badakigu lur onenak beti lautadetan daudela, eta leku errazena fabrikak-eta muntatzeko lautadak dira. Baina lurra amaitzen denean, hori ezin da berreskuratu; ez dauka bueltarik. Dagoen lurra ez da nekazaritzara bideratzen eta ez da babesten. ■ A.U.

EKONOMIA[>]

> DURANGO

Mapfrek behargin bat kaleratu du “bidegabe”

ELA sindikatua eguaztenean Durangoko Mapfreren aurrean mobilizatu da, “kaleratzerik ez” lelopean

ELA sindikatua eguaztenean Durangoko Mapfre aurrean mobilizatu zen, martxoaren 22an enpresak behargin bat kaleratu zuelako. Kaleratutako behargina 51 urteko andrea da, 28 urtean enpresan lanean jardundakoa, mobilizazioan parte hartu zuen eta bertan adierazi zuenez, “egun batetik bestera kalean utzi naute, justu jubilaziorako kotizatu behar nuenean, eta onura sozial guztiak galdu ditut”. Gainera, “ezin dut ezer

“Egun batetik bestera 51 urte gaz kalean utzi naute, 28 urtean enpresan beharrean jardun eta gero”

egin enpresak bidegabeko kalera-tzea izan dela onartu du-eta”. Behargina “oso minduta” dago: “Ez dut inoiz bezeroen kezarik izan, eta nagusiak nirekin pozik zeudela pentsatzen nuen”.

Mapfrek kaleratzeko eman dituen arrazoiak, beharginak azaldu duenez, “iraila abenduko kanpainan ezarritako kopurua baino bezero gutxiago lortu nituela eta interes gutxi nuela” dira, baina



ELAk beharginari babesa eskaini zion, Durangoko Mapfre enpresaren aurrean mobilizatuta.

“hori ez da onargarria”, beste kanpainetan kopurua gaitzitu zuelako. “Dakigunez, Mapfrek behargin bat kaleratzen duen lehen kasua da, lapurtzen dutenak bakarrik kaleratzen dituzte, alferriak ere ez dituz-

Kaleratzeko arrazoiak
“pertsonala izan daiteke, edo koiunturala, enpresari ondo datorkiolako”

te kaleratzen. Eta nik ez dut lapurtu”. Beharginaren arabera, enpresaren erabakian ez dago arrazoi ekonomikorik, “pertsonalak izan daitezke, edo koiunturalak enpresari ondo datorkiolako”. ■ G.A

> DURANGALDEA

Maiatzaren Leheneko mobilizazioak

Sindikatuak bakoitzak bere alde-tik mobilizazioak egingo dituzte, beharginen eskubideen alde. LABek deialdiak eskualdeka egingo ditu; Durangon 12:00etan irten-go da manifestazioa Andra Mari-tik, *Langileon borroka, aldatetaren indarra* lelopean. LABen ustez, aldatetaren bidean beharrezkoa da “marko politiko eta instituzional berria finkatzeko bidea egitea, instituzioak herriaren zerbitzura jartzeta eta politika ekonomiko eta sozialak aldatzea”.

Beste sindikatuak Bilbon egingo dituzte aldarriak. ELA Inoiz baino gehiago sindikatua lelopean, 11:30ean Jesusen Bihotzetik irten-go da. Leku eta ordu berean CCOO eta UGTk *Enplegua eskubideekin eta gure pentsioen bermea* defendatuko dituzte, prekarietatearen kontra. ELAk azaldu duenez, “inoiz baino gehiago, negoziazio kolektiboa izango da lehentasun sindikala, ugazaben xantaiei aurre egiteko, soldatak hobetzeko, eta kaleratzeen aurka borrokatzeko”. ■ G.A.

Sindikatuak lan osasuna aldarrikatu dute

LAB sindikatua Mendiguren y Zarrua enpresak Abadiñon duen planta aurrean mobilizatu da

Eguaztenean Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean LAB sindikatuak kontzentrazioa egin zuen Mendiguren y Zarrua enpresak Abadiñon duen plantan. Izan ere, LABek salatu duenez, “enpresak konkurso egoeratik denbora errekorrean atera zela azaldu zuen,

baina 46 behargin kale gorrian utzi eta geratzen zirenen lan baldintzak okertuz, segurtasuna eta osasunari buruzkoak”. Horrez gainera, “komitekoa eta aldi berean prebentzio delegatu den kide batek bere lana egiteagatik eta inspektzioaren aurrean enpresan zeu-



LAB sindikatuko ehun bat delegatu mobilizatu ziren MZ aurrean

den hainbat irregulartasunen inguruan salaketa bat jartzeagatik enpresak ez du mehatxatzeko inongo erreparorik izan”. LAB sindikatua “ez dago prest” horrelako jarrerarik onartzeko.

LAB sindikatuak salatu duenez, Durangaldean sei dira 2010. urtea hasi zenetik lan istripuetan hildako beharginak. Gainera, “milaka eta milaka dira egunero egunero segurtasun eta osasunaren inguruan enpresen jarrera eta administrazioaren utzikeria pairatzen duten beharginak”.

Manifestazioak Bilbon

Sindikatuak Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna Bilbon ere aldarrikatu dute. ELAk *Lan osasuna finantziario iturri* lelopean, lan osasun eta segurtasuneko politika publikoak goitik behera aldatzeko eskatzen du, besteak beste, enpleguaren prekarietatea borrokatu eta langile-klasearentzat lanpostu duin eta egokiak bermatzen duen politika ipintzeko.

CCOO-UGTk euren aldetik *Sindikatuak lana seguruagoa* da lelopean lan istripu eta lan gaitxotasunen kontra aldarrikatu dira Bilboko kaleetan. ■ G.A

■ kolaborazinoa



Roberto Martin
CCOO sindikatua

Krisia

Bigarren urtez jarraian, Maiatzaren Lehena ospatzeko garaia heldu zaigu krisia langileoi gogor joka ari den bitartean. Euskadiko Langile Komisionen ustez, argi dago krisiaren irteerari buruz ez dagoela berba egiterik enpleguak gora egiten ez badu. Azken hilabeteotan zehar, guda baten lekuko izan gara. Krisialditi nola atera eta haren aurrean zer egin, horixe da ikusten ari garen guda ideologikoa. Alde batean, batzuek uste dugu aberastasunaren birbanaketa eta gizarte oreka berebizikoak direla beste puxika espekulatibo bat saihesteko. Gure larruan egiaztatu dugu burbuila horiek ekonomia erreala eta enplegua suntsitu besterik ez dutela egiten. Aurrez aurre, beste batzuek nahiago dute gauzak bere horretan mantentzea. Alegia, gobernuek beren politikak gutxi batzuen interesen neurria diseinatzen jarrai dezatela.

Guda hori lan arloan ari da gertatzen, lantegietan, bulegoetan, gure herriko dendetan... Horretatik, sindikalismoak zeregin gakoa dauka borroka honen emaitza gure aldera desorekatzeko. Gure lanabesak aldarrikatzeari eutsiko diogu: negoziazioa eta mobilizazioa uztartuta, negoziazio kolektiboa eta gizarte elkarriketa.

Erronka handia daukagu aurrean: hitzarmen kolektiboak berpiztu behar ditugu eduki aberatsekin, elkartasuneko espiritu batekin, enpresetako eta gure ekonomiako arazoak konpontze aldera. Azken finean, hitzarmenak baitira errentaren bidezko birbanaketaren alde daukagun lanabesik indartsuena. Gizarte elkarriketaren garrantzia aldarrikatzen dugu, langileon interesen aldekoak diren politika publikoen gainean eragin gaitasuna eskuratzeko. Enpresari eta gobernuei mezu bat helarazi nahi diegu: krisian daukaten erantzukizuna ezin dute ukatu. Horregatik, euren betebeharrak dira gizarte babesa indartzea, jardueria ekonomikoa sustatzea eta enplegua sortzea. Eta lehen baino lehen, gainera! Helburu hauek argi eta garbi daramatza CCOOk negoziazioa esparru guztietara, mobilizazioaren indarrak lagunduta. Maiatzaren Lehenean, gizarte eredu sendo bat aldarrikatu dugu espekulazioak eta diruzalekeria itsuak sortarazitako krisi honetan. Gure jomuga langileetatik gertu egotea da, haientzat lagungarri izatea, eta horretarako gero eta indartsuago behar dugu izan gure aurkarien aurrean: gobernua eta patronala.

KULTURA[>]



Bigarren saria jaso zuen Anton Urrestiren eta lehenengo saria jaso zuen Jose Miguel Arranz de Juan margolariaren lanak, hurrenez hurren.

PINTURA > ERAKUSKETA

Kaleko Pintura lehiaketaren hamaikagarren aldia Berrizen

Lehiaketa egunetik, apirilaren 24tik, Berrizko Kultur Etxeko sarrerako erakusketarako gunean bilduta, ikusgai daude 2010 urteko Berrizko Kaleko Pintura Lehiaketara margolariak aurkeztu dituzten koadroak. Eguraldia lagun izan zuten pintura lehiaketaren aurtengo edizioan, eta zapatu goiz eguzkitsua izan zuten 19 parte-hartzaileek.

Iazko lehiaketa egun gris eta umelagoan izan zen, eta herriko eraikinen aterpeetan babes hartuta jardun zuten gehienek lanean. Tren-geltokiaren burdinbidearen eta autobideko azpialdearen kolore marroi, beltz eta urdinak jaso zituzten euren koadroetan iaz. Margolariak euren lana bertatik

bertara egiten ikustearen xarma eguraldiak ere lagundu du XI. edizio honetan, eta horren emaitza, maiatzaren 16ra arte gozagai dugun erakusketa da: koloreek eta naturak betetako koadroak. Besteak beste, lehiaketako lau sariak jaso zituzten *Reflejos en el riachuelo*, *La primera luz*, *Lehen distirak* eta *Andikoa* lanak daude ikusgai.

Jose Miguel Arranz de Juan erandiotarrak irabazi zuen lehenengo saria, Anton Urresti mendarorak bigarrena eta Eneko Arruza lekeitiarrak hirugarrena. Herriko saria, berriz, iaz ere sari bera jaso zuen Txomin Pinillak jaso zuen, zapatu arratsaldean Berrizko Kultur Etxean egin zuen sari banaketa ekitaldian. ■ I.E.

12 Udaberriko Kontzertuak maiatzean

Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan Udaberriko Kontzertuak antolatu dituzte datozen asteetarako. Urtean zehar ikasitakoa erakutsi ahalko dute eskolako ikasleek.



13

'Gertukoak-Ausencias' liburuaz

Jesus Mari Arruabarrenak Costa da Morten, Pas haranean eta amaren Abadiñoko baserrian egindako argazkiak bildu ditu 'Gertukoak-Ausencias' liburuan.

MUSIKA > EMANALDIAK

Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako kontzertuak

Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleen emanaldiak prest maiatzerako

Durangoko Montevideo etorbidean dagoen Bartolome Ertzilla musika eskolan ikas-
turteguztian zehar burutzen duten lanaren eta musika ikastetetan ematen dituzten aurrerapausuen erakusle izaten dira Udaberriko Kontzertuak. Eskola ezagutu gura duenarentzat ere, maiatzaren 21ean, 17:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte ateak.

Eskolako saxo ikasleen emanaldia dago maiatzaren 5ean

Maiatzeko hiru egunetan, besteak beste, Leioako musika eskolako ikasleen tronpeta kontzertua 21ean eta Bartolome Ertzillako saxo ikasleen kontzertuaren zazpigarren edizioa izango dira musika eskolan. Rock eta pop musikaren doinu ezagunak saxofoiagaz joko dituzte musika eskolako ikasleek maiatzaren 5ean. Maiatzaren 28an, bestalde, iaz estreinatu zuten musika eskolako umeen *Aitona-ren urtebetetzea* opera eskainiko dute Zornotzan. ■ I.E.

- **Maiatzaren 5ean**, 18:30ean, **VII. Saxo-oke emanaldia** Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan, eskolako 25 ikasleren eskutik.
- **Maiatzaren 19an**, 19:00etan, **kamera musika kontzertua** musika eskolan, Leioako kontserbatorioko ikasleen eskutik.
- **Maiatzaren 21ean**, 17:00etatik 20:00etara, **sarrera libreko III. jardunaldia** Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan; 18:00etan, Leioako kontserbatorioko ikasleen **tronpeta kontzertua**.
- **Maiatzaren 28an**, *Das Namenfest* umeen opera Zornotza Aretoan.



Bartolome Ertzillako umeen operaren iazko estreinaldia. J.F.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

kronika

Miren Amuriza nagusi Mallabian

Durangaldeko Bertso Txapelketa-ko lehenengo kanporaketan, Mallabian, maila oneko saioa izan zen, uste genduen moduan. Ilusinoz betetako agurren ondoren, Julen Sololuzek zinonez, “4 zaldi, behorra eta 3 hileko moxalak” Maite Berriozabalek gaiak emon ahala, zortziko nagusian ofizioa ekin eutsien. Ondo danak be.

Zortziko txikioa gogor hasi eben Beñat eta Garikoitzek, lehenengoak etxe barrian ateratzen zituen zaratak zirela eta ez zirela eduki eben elkarriketan. Unai eta Gorkak ez eben elkar hartu, nabaritu zen legez. Mirenek eta Julenek, oster, neba-arreba moduan, distira atera eutsien gauero ipuinak kontatzera etorten jaken aitari. Aita loak hartzen ei eban, baina gu itza-

rrik eta txaloka aritu ginen luza-roan. Julenek jendaurrean lehenengo kantatu ebala, baina, ez jakon asko igarri. Ondoren, gaiemaileak puntua ipini ahala berehalako erantzuna emoten eutsien; denborarik galdu barik, bizkor erantzun be.

Beñat Ugartetxearen kartzelakoa gustatu jatan gehien

Mirenek eta Julenek, distira atera eutsien neba-arreben gaiari

Amaitzeko, kartzelako lana egoan: “Amets bat izan dozu, amaitzea gura ez zenduen ametsa. Itzartu egin zara, baina”. Gai polita bi bertso tarako. Beñat Ugartetxearenak gustau jatazen

Maila oneko saioa izan zen Mallabikoa, uste genduen legez



A.Ibaibarriaga

gehlen. Txisparik ez dau galdu. Eta puntuak honek: 201,5 Miren Amurizak; 194,5 Beñat Ugartetxeak; 180,5 Gorka Lazkanok; 175 Julen Sololuzek; 157 Garikotz Sarriugartek; eta 148,5 Unai Ormaetxeak. Zorionak, Miren!

Gaur gauean Iurretako saioaren txanda da, Oromiñoko San Marko auzo-elkartean Abarakas, Lepotxo, Salaberria, Aldazabal eta Urkiaga lehiatuko dira Lazkanoren laguntzaz, 21:00etako afariaren ondoren.

Gaur da Iurretako saioa: Oromiñoko San Marko auzoan

GEURE DURANGALDEA



Jose Martin Urrutia, ‘Txotxe’ Irakaslea

Begi handiak

Azkeneko hogeitortean Marokora jaitsi izan naiz neguan zein udaberrian. Hasieratik kateatu ninduten Atlaseko mendikateak eta bere herritarrek. Kosmos berri bat nire aurrean, zuriz jantzi-tako mendi gailurrak, palmondoz jositako erreka bazterrak, pista amaigabeak, lur eta lastoz egindako herri zein jauregiak, basamortua eta, edonon eta edozein tokitan zein ordutan, bertan bizi diren berbereak. Gu bezala, hizkuntza zahar bat mantenduz, mendiak ematen dien babesari esker. Urtetik urtera aldaketen ikusle pribilegiatua izan naiz, argi indarra ez zegoen tokietara nola iritsi izan den, poste eta kable luzeak nola aldatu duten paisaia edo harriz betetako pistak galipotezko geruzekin zelan jantzi diren... Bedford zaharrek Isuzu eta Toyotei bide ematearen lekukoa ere izan naiz. Ezagutu dudak kosmosa aldatuz doa etengabe.

Gehien gustatu izan zaidan aldaketa tamazight hizkuntzaren onarpen ofiziala izan da. Haur eskoletan hasi dira klaseak euren ama hizkuntzan jasotzen, eta eskolako hormetan harro agertzen da behingoz berbereen hizkuntza. Aurtengo bidaiari ere bukaera iristen ari zaio, eta Atlaseko mendilerroa agurtuz Sebtarantz abiatzen naiz barkua hartzeko asmoarekin. Atzean gelditzen da Atlasa, eta zer aldaketa aurkituko ditudan bueltatzen naizenean, “insaala”, galdetzen diot nire buruari.

Sebtan ‘levant’-ak gogor astintzen du itsasoa, eta barkuz egin behar dudana tarte korapilatu egiten da. Piramide forma duten olatuek gogor jotzen dute ontzia, eta bertako barandatik jarraitzen dut ikuskizuna, ederra zein beldurgarria. Nire ondoan gazte magrebiar bat dut, eta begi handiekin begiratzen nau; itsasoak beldurtu duela pentsatu dut. Gutxira Algecirasen gaude, eta Guardia Zibilek nola atxilotu duten ikusten dut. Begi handiekin begiratzen nau, eta orain konturatzen naiz zeri zion beldurra. Zoritarrez, gauza batzuk ez dira aldatzen.

Kristina Mardaras

ARGAZKIGINTZA > ELKARRIZKETA



Desagertzeaz dauden errealitateak, argazki-liburu batean gorderik

‘Gertukoak-ausencias’ izenburua eta haizeak ileak astintzen dizkien hiru emakumeren Muxiako kaimuturreko argazkia du Jesus Mari Arruabarrena argazkilari garaitarraren liburuak azalean. Barruan, argazki zein testu interpretatiboetan arakatuta, galerari eta oroimenari buruzko gogoetak topatuko ditu irakurle-ikusleak, Arruabarrenak orain arte egin duen lanik “pertsonal eta fotografikoenean”

Amaren Abadiñoako Gaztelua auzoko baserrian egindako argazkiak, Galiziako Costa da Mortekoak eta Kantabriako Pas haranean egindakoak biltzen ditu Jesus Mari Arruabarrenak *Gertukoak-Ausencias* argazki liburuan.

Hamasei urte zeuzkala hasi zen Arruabarrena argazkiak egiten, eta sasoi batean ogibide moduan eduki zuen arren, “oso txarto moldatu nintzen”, dio: “Ez da argazki onake egitea bakarrik, argazkilari moduan sentzibiltate handia izan arren, estrategia ona ez bazara, ez duzu lortuko argazkigintzatik bizitzea”.

Nekazal eta landa
guneen erakusgarri
dira irudiak

Geo, Integral eta dagoeneko desagertuta dagoen Península aldizkarietarako egin ditu argazki erreportajeak Arruabarrenak. Gaia aukeratu eta inork eperik inposatu barik egin izan du beti lan, sekula ez enkarguz. Itzultzaile lanetik bizi da gaur egun, aita da, eta dioenez, gura baino asti gutxiago dauka argazkigintzarako. Hala ere, “argazkigintzagaz oso hartu-eman intentsoa” dauka gaur egun ere.

Gertukoak-Ausencias argitaratuta, “dekadentziari buruzkoak” diren argazkiak biltzen dituen lanean dabil buru-belarri orain: Bilbon eta Porton egin ditu orain artekoak argazki “urbanoagoak”. Fikziozko istorio bat, argazkigintza dokumentalagaz landutakoa da egiten dabilena, istorio beltzen ezaugarriak dituen. Lan hori, baina, guztiz zabalik dago, eta bere berbatan klabea “presarik barik jardutea” da, beste edozeretan moduan argazkigintzan ere bai. Argitaratu edo erakutsi aurretik, “neure burua frenatzen ahalginduko naiz”, diosku.

Gertukoak-Ausencias liburuak, aldiz, nekazal eta landa guneen erakusgarri diren argazkiak dira. Galtzeaz dauden bizimodu eta bizitzak gordetzen ditu liburu orrietako argazki eta berbetan Arruabarrenak.

Argazki asko eta asko kaxoietan gordeta gelditzen direla dio, eta “bideratu ezik, nahiz eta erretratuak onak izan, askotan kaxoietan usteltzen” direla. Ordenagailuan gordetzen ditu argazkiak orain: azken bost urteetan argazkigintza digitalean dihardu, eta

“1986 urtean
egindakoak dira
liburuako argazki
zaharrenak”

amaren baserriko argazkiak kamera digitalagaz egindakoak dira. Liburu gainerakoak, 1986tik egindakoak, analogikoagaz egindakoak dira. Orain hainbeste urtekoak izan ez arren, Galiziako hasierako bidaietako argazki batzuk hondatuta ei daude, eta bertan idatzitako apunteak galdu egin ei ditu.

“Gaiak eramaten zaitu, materialak gidatzen zaitu”, dio Arruabarrenak liburu sortzeko ideiarekin sorrerari buruz galde-tuta. Aitaren heriotza bizi izan du duela gutxi, baina, dioskunez, ez daki zehatz esaten liburu hau sortzeko harra sortu dion arrazoi hori izan ote den. Arruaba-

Euskal Herria, Pas
harana eta Costa da
Morteko irudiak

rrenak badioskuna da egin dituenetik lanik pertsonalena eta fotografikoena dela *Gertukoak-Ausencias*. Barneratzen den istorio guztietan legez, “proiektuan asko sinestuta” jardun duela azaldu digu, eta “gaiak kautibatu” egiten duela beti; artzain, errotari, gatz-gile eta erremetari eta perratzaile ogibideei buruzko liburu bat izan zen orain urte batzuk osatu zuen lehenengoa, kasurako.

Liburu honetan “barruak hustu” dituela dio, eta zentzu horretan gogorra izan litekeen arren, “liberazio moduko bat” izan dela: “Halako gai emotiboak lantzeko gai izatea gertatutakoa zelanbait gainditu izanaren seinale ere izan daiteke”, egin du gogoeta. Liburuako argazkietatik gehien ukitzen duena aitaren gaztetako bat ei da, baina argazki guztien atzean barrena ukitu dion zeren bat dagoela dio.

Motibatzen duten gaiak

Gustura ibili arren, “oso gogorra” ere gertatu zitzaiola baserri-munduan argazkiak egitea onartu digu argazkilari garaitarrak: “alde bisualetik oso potentia den irudi batetaz ohartzen zarenetik erretratu hori lortu arte, berba asko egin beharra dago, gehiegi batzuetan”. Batez ere, erretratu interpretatiboa bada: “oso gaitza da jendea jokoan sartzea lortzea, asko landu behar da argazki bakoitza”.

Galiziak, bestalde, xarma berezia du Arruabarrenarentzat: hondoratzeen edo *percebeiroen* istorioak dira berezi egiten dutenak. Muxian ezagutu eta urteetan gutunez beragaz hartu-eman izandako argazkilariari eta haren argazkiei eta bizimoduari omenaldia egin die liburuan; “beste mende bateko gizon bati”. Desagertzeko zorian dagoen beste errealitate batez, “gutunetako zigilu-marken eta eskuz idatziriko gauzen estetikagaz” ere jokatu gura izan ei du liburuan. Arruabarrenak Muxiara bidalitako azken gutunak ez du erantzunik izan, baina lehenago jasotako gutunen zati batzuk badaude liburuan ikusgai: Hitz, Urrike eta Arteka liburutegietan dago liburu salgai Durangon, eta jmarruab@hotmail.com helbidean eskatuta ere lortu daiteke *Gertukoak-Ausencias*. ■ I.E.



ANTZERKIA > EKIMENA

'Zugan ni': gazteek antzerkia gertuago sentitu dezaten

Hirugarren urtea da Markeliñe taldeak 'Zugan ni' koordinatzen duena



Gazteen taldeetako batek Durangoko San Agustinen iaz egin zuen emanaldia. J.F.

MUSIKA > EMANALDIA

Done Zezili abesbatzagaz joko du Jaizale txistuzale taldeak maiatzaren 2an

Traña-Matienako elizan egingo dute jaietako urteroko kontzertua, maiatzaren 2an, 11:45ean

Durangaldeko txistularien Jaizale taldeak urteroko ohitura jarraituta, kontzertua eskainiko du Traña-Matienako San Prudentzio jaietan. Jaizale taldeko txistulariek eta Abadiñoko Done Zezili abesbatzak kontzertu bat elkarregaz egiten duten lehenengo aldia izango da, baina, maiatzaren 2koa.

Txistulariak eta abesbatza elkarregaz lehenengo biderrez

Antolatzaileek aurreratu dute, txistulari eta abeslarien artean, 40 partaide izango dira San Prudentzio jaien barruko emanaldian. Isidro Ansoarenaren *Zal-dibiko usaia*, Jose Ignacio Ansoarenaren *Juana Bixenta Olabe* eta *Habanera del Guria*, Rosa M^a Tarruell-ren *Paseando por el malecón*, Carlos Sanchez-en *Ituren-go arotza* eta Sabin Gereñoren *Ikusi mendizaleak* obrak eskainiko dituzte Matienako elizan.

Txistuagaz eta ahotsagaz joko dituzte kantetako zenbait, eta ahotsagaz bakarrik zein txistuagaz bakarrik ere eskainiko dituzte kontzertuko abestietako bi.

Abesbatzaren zuzendari lanean Yolanda Etxeitak jardungo du emanaldian, eta Eleder Iturretak izango du txistulari taldea zuzentzeko ardura. Abeslari bakarlari, bestalde, Juanan Azkaratek jardungo du emanaldian.

Jaizale Durangaldeko txistulari taldearen ohitura denez, Traña-Matienako jaietan ere berezitasun bat eskainiko dute aurten: Abadiñoko Done Zezili abesbatzagaz elkarlanean ikusi eta entzuteko aukera izango da. ■ I.E.

40 musikarik jardungo dute Traña-Matienako elizako kontzertuan

Yolanda Etxeitak eta Eleder Iturretak zuzenduko dituzte taldeak

Hirugarren edizioa da Markeliñe antzerki talde zornotzarrak Durangaldeko ikastetxeei zuzenduriko *Zugan ni* egitasmoa koordinatzen duena. Irailetik, datozen asteetan ohol-tza gainean aurkeztuko dituzten lanak prestatzen dihardute, besteak beste, Zornotza, Iurreta, Elorrio eta Durangoko ikasleek. Uda-berriagaz, egindako lana oholtzan erakusteko aukera heldu zaie.

Zornotza, Iurreta, Igorre, Durango eta Elorrioko ikasleak

Gazteei sormena garatzeko aukera ematea da helburua

Zornotza Aretoan, atzo izan zen *Zugan ni* lehiaketako lehenengo emanaldia, eta datozen egunetan ere (maiatzaren 4an, 5ean, 6an, eta 7an) hainbat talderen

emanaldiak daude eskualdeko aretoetan iragarrita. Zazpi ikusizun antzeztuko dituzte datozen asteetan; besteak beste, *Orban gorria* lana aurkeztuko du Elorrioko ikastetzeko taldeak, *Sagar-kunetatarren haserrea* Durangoko ikasleek, *Gustatzen zaiguna* iurretarek eta *Tb show* antzezlanak eskainiko dute zornotzarrek.

70 antzerkigile gazte

Antolatzaileek azpimarratu dute, 60-70 gazte dira aurten *Zugan ni* ekimenaren parte hartzen dihardutenak, 13tik 18 urtera bitarteko gazteak guztiak: Zornotza, Igorre, Iurreta, Durango eta Elorrioko ikastetxeetako ikasleak.

Gazteei euren sormena garatu ahal izan dezaten gune bat eskaintzea, baina, batez ere, antzerki ikuskizunen zabalkunde bultzatzea da ekimenaren bultzatzaileen helburu nagusia. Horretarako, antzezlanak prestatzen diharduten denboran begirale baten laguntza izaten dute ekimenaren parte hartzen dutenak.

Emanaldien ondoren, sari banaketa egingo dute datorren astean: maiatzaren 7an, Elorrioko ekitaldia. ■ I.E.

LITERATURA > EGITASMOA

'Irakurri, gozatu, oparitu' egitasmoa abiatu du, laugarrenez, Topaguneak

Irakurketa sustatzea helburu duen egitasmoa da Euskal Herriko 16 herritan egingo dutena

Euskara elkartearen Topagunea federazioaren bultzadagaz eta ekimena garatzeko den herri bakoitzeko euskara elkartearen lanagaz ipini dute *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpaina laugarrenez martxan. Durangaldean, Zal-dibarko Eixu eta Durangoko Berbaro euskara elkarteek sustatuta eta liburutegi eta liburudenden

Liburuaren Nazioarteko Egunagaz aurkeztu zuten ekimena

elkarlanagaz antolatu dute ekimena. Joan zen barikutik, apirilaren 23ko Liburuaren Nazioarteko Egunetik, dago egitasmoa abian, eta, aurreko edizioetan moduan, hiru dira kanpainak ematera bultzatu gura gaituen pausuak: herriko liburutegian liburu bat mailegatu hartzea da bat, irakurri eta liburuari buruzko fitxa bat bete-tzea bigarrena, eta liburutegian emango diguten %25eko deskontu txartelagaz herriko liburutegian lagun, senide edo norberak hautatzen duenari oparitzeko liburu bat erostea azkena. Irakurri, gozatu eta azkenik oparitzea da, Topagunearen proposamena. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



APIRILAK 30 22:00etan
AUDIENCE + MANETT
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

MAIATZAK 9 17:30ean
HARRITXU MARITXU
ANE MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI
ANTZERKIA. Sarrera: 3 euro (umeei bakarrik)

MAIATZAK 13 22:00etan
VUELVE, BIGOTILLO, VUELVE
BANARTE ANTZERKI TALDEA
ANTZERKIA. Sarrera: 3 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



HAMSTER
Juanjotero Producciones
La Escapista Teatro eta
Sala Triángulo
Apirilak 30 • 20:30ean

ZUGAN NI
• Durangoko taldea
• Zornotzako Carmelo
ikastetzeko taldea
Maiatzak 6 • 20:30ean

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA




BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA PROMOZIOAK SUKALDEAK ETA BAINUGELAK



HILABETEKO DOAKO FINANTZIAZIOA

Udaberria da urteko sasoirik onena zure sukaldea edo zure bainugela
berritzeko eta Bautistak are errazago jartzen dizu

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski-rondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

PROMOZIO HONEK FINANTZA-ERAKUNDEAREN ONESPENA BEHAR DU ETA 2010eko ELAIAREN 30a ARTE-DAGO INDARREAN.



Jose Benito Aranburuk eta Ibone Gallastegik ganadua gobernatzen dute Mallabian, eta Zaldibarko harategiaren kargu ere badira. Juan Gallastegik, Iboneren nebak, Durangoko harategia eramaten du aurrera.

Kepa Aginako

“Etxeko okela eskaintzen dugu: betikoa, kalitatekoa”

Okela ekoizpenaren kate osoa lantzen dute gallastegitarrek. Mallabiko aranburutarren Zubitegi baserrian ganadua hazi, eta Zaldibar eta Durangoko harategietan saltzen dute okela. Eusko Label markaren baitan dihardute.

Urte askoko ibilbidea daukazue eginda lan honetan.

Juan: Gure aitak Zaldibarko harategia 1955ean sortu zuen, eta 1970ean Durangokoa. Gero, Ibonek eta nik herentzian hartu genituen. Koinatuak abereak hazten ditu.

Jose Benito: Lehenago hemen esne-behiak geneuzkan, baina orain dela 30 bat urte horrek kendu eta haragi-ganaduagaz hasi ginen.

Ibone: 1996 ingurutik gaude Eusko Labelean. Beraz, 14 urte daramatzagu markaren baitan lanean.

Kate osoko lehenengo lana abereak haztea da.

J.B.: Txahalak, jaiotzean, bere kargu egitea behar du. Eguraldi onagaz kanpora ateratzen ditugu, eta hor

eurak gobernatzen dira, baina jaten-eta eman egin behar zaie. Guk etxean jaiotako abelburuak izaten ditugu, gehienbat, guk hazi eta loditutakoak; inguruan jaiotakoak ere bai. Eusko Labelean egoteko EAEn jaiotako ganadua eduki behar da.

Zer ematen diezue jaten?

J.B.: Kanpoan dabiltzan bitartean belarra jaten dute, eta txahalek amaren esnea ere edaten dute, 6-7 hilabetera arte. Azkenera arte, kontrolatutako pentzu naturala ematen diegu: artoa, garagarra, baba, soja... eta antzeko gaiekin egindakoa.

Gero hiltzeirako bidea hartzen dute animaliek.

J.B.: Bai, baina lehenago kortan egon behar dira denbora

batean. Udagoienera sartuz gero, sei bat hilabetea, eta udan sartuta lau batean. Haragia biguntzeko eta grasa hartzeko behar dute lasai eta geldirik egotea. Hiltzeko prozesua oso garrantzitsua da, zehatz-mehatz jarraitu beharrekoa. Azken momentuan zer edo zer txarto eginez gero, aurretik egindako lana alperrekoa izan daiteke. Hiltzerako orduan ezin dira urduri egon, horrek ere okela gogortzen duelako. Haragiak ganaduaren tentsioa jaso eta kalitatea galtzen du.

J.: Garrantzi handia ematen diogu hiltzeko prozesuari. Ganadu gutxi dagoen egunean eramaten dugu, nahiko bizkor hiltzeko. Izan ere, ezinbestekoa da ondo zaintzea. Hotz-katea ere mantendu beharrekoa da: 0-5 graduren tartean egon behar du okelak. Bestela, haragia zahartu egiten da, eta kolorez ere ilundu. Hiltegitik dendarako garraioan ere mantendu behar da tenperatura egoki hori, ezin da eten hotz-katea.

“Kontrolatutako pentsu naturala ematen diegu: artoa, garagarra, baba, soja...”

“Hiltzeko prozesua oso garrantzitsua da, zehatz-mehatz jarraitu beharrekoa”

“Eusko Labelean egoteko EAEn jaiotako ganadua eduki behar da”

Zelan merkaturatzen duzue?

J.: Guk lehengo erara saltzen dugu. Ez dugu merkatal zentroen moduan ontziratuta saltzen. Erosleak gura duena unean bertan mozten dugu, eta xehatu ere bai. Kalitatea eta arreta eskaintzeagatik bereizten gara; erosleak, okela zelan zatitu edo mozten dugun begien aurrean ikusten du.

I.: Bestalde, aipatu gura nuke okelaz gainera Labeleko beste hainbat produktu saltzen ditugula, harategi batean saldu daitekeen guztia.

Zein da, zuen ustez, kontsumitzaile irabazteko giltza?

I.: Kalitatea eta produktu iraunkorra. Harategi batek gaur Mallabiko baserri batean erosi dezake okela eta bihar Mañarian. Bata ona izan daiteke, eta bestea ez hainbeste. Guk, etxeko okela eskaintzen dugu; betikoa, berdina.

Kontsumitzaileekiko tratu zuzenak ere lagunduko du...

I.: Bai. Jendeak konfidantza du gugan. Okela zelakoa irten den komentatzen digu, eta guk ere hobeto azaltzeko aukera daukagu.

J.: Dena dela, gurago nuke jendeak gehiago ezagutzea erosten duena. Labeleko okela hainbat datugaz kaleratzen da: nongoa den, non hil den, noiz zatitu den... Saltzen dugun guztia identifikatuta eta sailkatuta dago, prozesu osoko kontrolen bitartez, eta jendea ez da horretan larrijatzen, ez du estimatzen.

Izan ere, kontrola zehatza da prozesu osoan, ezta?

J.B.: Baserrira sei hilean behin etortzen dira azterketak egiten: txiza, ilea, pentsua... hartzen dituzte lagin legez. Hildakoan, okela ere aztertu eta identifikatzen dute.

J.: Produktua sailkatzeaz aparte, dendako salmentak ere jasotzen dituzte teknikariek programa baten bitartez. Temperatura eta ADN probak ere hartzen dituzte. Kontrolak pasatzen ez dituzten harategi edo enpresak markatik kanpora geratzen dira.

Labela edukitzeak abantailak ekarriko ditu...


J.B.: Adibide bat emateko: behi eroen kasua eman zenekoa. Orduan jendeak beldurra zion okela erosteari, baina Labeldunagazko konfiantza erakutsi zuen. Bazekiten hemengoa eta kalitatekoa zela.

J.: Bestalde, kalitateaz gainera, prezio onekoa da. Topikoa da Labeldun okela supermerkatuetakoa baino garestiagoa dela, baina hori eurek datuekin egiten duten jokoa da; ez da egia.

Diotenez, kontsumitzeko eredu aldatu egin da krisiaren eraginez...

I.: Denboraldi baten apur bat igarri dugu, bai. Azkenaldian haragi merkea azkarrago saltzen da.

J.B.: Lehen tajada, txuleta, entrekota... ziren salduenak, eta orain gisatu etarako eta okela barik gaude ia. Jendeak merkerak jo du. ■ M.O.



Kepa Aginako

Baserritik harategirainoko kontrol zehatza



Juan Durangoko Antso Estegizko harategian; Zaldibarren, Zalduako Enparantzan daukate. K.A.

Kalitatea Fundazioak ondokoak bermatzen ditu Euskal Okela markagaz lotuta:

Jatorria: EAEn jaiotako, hazitako eta hildako animalia.
Batez bestekoa baino kalitate hobekoa.
Osasungarritasun-berme osagarria.
Produktuaren benetakotasuna.

Ezaugarri horiek guztiak araudi batean daude jasota, eta kontrol-sistema integral baten bitartez egiaztatzen dira, produktotik hasi eta kontsumitzailearenganaino heldu arte; fase guztiak kontrolatzen dira (eraldaketa, ontziratzea...) eta ondorengoak egiten dira:

1. Tekniko adituen ikuskapenak eta auditoriak.
2. Produktuaren aukeraketaren kontrola.
3. Laginak hartzea eta aztertea.
4. Instalazio, ekipo eta prozesu guztien eta produktuaren beraren kontrol administratiboa eta informatikoa.

Horrela ezagutzen da

• Euskal Okela bakarrik baimendutako harategietan saltzen da.

• Erraz topatu daiteke, Eusko Label ikurragaz nabarmenduta dago-eta.

• Harategi horietan, kontsumitzaileak Euskal Okela erosten duen bakoitzean, balantza berezi batek emandako etiketa eranskor bat jasotzen du, eragiketaren zehaztapen guztiak adieraziz eta Eusko Label-Kalitatea zeinuarekin

IRITZIA >

Gutunak @

Udaltzainen jazarpena, Udalaren baimenarekin

Igandean, apirilaren 18an, Durangoko udaltzainen bi patruilak, hiru agenterekin, goizeko 06:30ean bi isun jarri zizkidaten nire lana egiteko zama-lanetan ari nintzela. Ibilgai-luaren baimena kendu zidaten eta eurretako batek, ahotsa goratuz, lau aldiz esan zidan: "Ez pentsatu ezergatik ere espaloia ukitzerik anbulantzia edo suhiltzailea izan ezik". Lau aldiz galdetu behar izan nion ezin bainuen sinetsi esaten ari zitzaidana. Patruila-autoetako bat gurutzatu egin zitzaidan alde egin ez nezan. Goiz osoa egin behar izan nuen alokatzeko auto baten bila banaketa egiteko. Bestela, zepoa jarriko zidaten. Segituan, beste denda batera joateko zama jaso nuenean, atzetik jarraitu ninduten argiak itzalita.

Merkatari naizen aldetik, hainbat aldiz eskatu dut lan egin utzi diezadaten. Arazo honi irtenbidea bilatzen saiatu naiz, beste merkataria batzuei sinadurak eskatuta, zama-lanetarako leku bat izan dezagun. Gaur egun zama-lanetarako dauzkagun lekuak beti daude hartuta. Hainbat aldiz deitu izan dut Udaltzaingora gune horiek hartuta zeudelako, eta han ez da inor agertzen. Nik nire zergak ordaintzen ditut. Niri isuna jarri zidaten apirilaren 18tik 24ra leku horretan jarri dituzten isunak ere eskatzen ditut; leku horretan 07:00etatik 21:00etara aparkatu duten guztien bideoak eta CDak dauzkat. Niri jarritako isuna zuzena bada, justifikatu ditzala gainerakoak.

Udaltzainburuekin berba egitea eskatu dut, telefonoz, hainbat aldiz, eta ezin izan du jarri lanpetuta zegoelako. Idatziz ere eskatu dut. Nik eta nire langileek alkatearekin berba egitea ere eskatu dugu eta hark ere ez gaitu hartu. Kasurik egiten ez didatela ikusita oposiziokei eman dizkiet bideoak eta CDak, argazkiekin frogatu moduan.

Pablo Torres - Durango

Klik batean @



Pasabidea zikinkeriaz beteta dago

Traña-Matienako Kamineroaren etxe ondoan dagoen pasabidea egoera honetan topatu dugu, zikinez beteta. Inguruan egiten dabilzan obren eraginez-edo, hondakinak leku horretara heldu direla azaldu digu argazkia bidali digun irakurleak. "Oinezkoendako pasabide bat egoera honetan uztea baino, hobe da zarratzea", gaineratu du.

Sei hankako mahaia



Juan José Gastañazatorre
PP

Hobe berandu inoiz ez baino

Orain dela ia hamarkada bat, Durangoko Alderdi Popularrak, gure herrian kirol azpiegitura moderno eta ondo hornituak behar genituela ikusirik, biztanleengandik gertukoak, neurri handiko azpiegitura eraikitzekeo ideia aurkeztu genuen, anbiziotsua izanik ere Udalak gauzatzeko aukera eta betebeharra zuena, udal jabegoko lur erabili gabeak bai baigenituen, eta ekin eta ekin, azkenean lortu dugu gure proposamen irrikatuenetako bat gauzaturik ikustea.


Ia hamarkada bat da Alderdi Popularrak kirol azpiegitura moderno eta hornituen beharra ikusi zuela Durangon

Gure esperantza da hiritarrek itxaroten dutenaren neurriko kirol zerbitzuak gozatuko dituztela eta durangarrek sentitu dezatela XXI. mendeko beharrezanekin bat datozen azpiegiturak edukitzearen harrotasuna.

Urteak pasatu dira eta batzuetan ahaztu egiten diren hainbat kontu daude. Alderdi Popularra izan zen ekimena hartu zuena, eta ez da kontua paparrean dominak jartzea, baina gogoratzen ez dena ahanzturan erortzen da, eta nor hoberik gu baino hau gogora ekartzeko.

Aurrera, beraz, dena helitzen baita lehenago edo geroago, eta hobe da berandu inoiz ez baino...

PP izan zen ekimena hartu zuena. Ez da kontua domina jartzea, baina gauza batzuk ahaztu egiten dira



**Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta
astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten ize-
nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko apirilaren 30a - 9. urtea - 371 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Kataide Industriegunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

**ORAIN
DURANGON!**

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



 **2** UNTE

1000 b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA EWF 10160 W
335 € 

 **2** UNTE

1000 b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA SPRING 610
300 € 

 **2** UNTE

1000 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA SPRING 7110
350 € 

 **2** UNTE

1200 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA L-72557
475 € **AEG**

 **2** UNTE

1200 b/min
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA DFW 802W
545 € 

 **2** UNTE

1400 b/min
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA L74950A
525 € **AEG**

 **2** UNTE

A Sailkapen energetikoa

ONTZI-GARBIGAILUA 3VS300BP
330 € 

 **2** UNTE

2000 X 600 X 600

A+ Sailkapen energetikoa

NO FROST
HOZKAILUA S75380KG
650 € **AEG**

 **5** UNTE

A Sailkapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA 6H760AX
475 € 

 **5** UNTE

INDUKZIOA IF 3AX
475 € 

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagutu galtzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

 **ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA**

 **MERKETO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA**

 **GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU**

 **+dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI**

AGENDA

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Apirilaren 30ean, 17:30ean

JULES VERNEREN AZKEN BIDAIA

Familia osoak gozatzeko moduko abentura istorioa. Jules Verne idazlearen abenturak bizitzeko aukera ematen digu Gorakadak. Liburu berriko pertsonaia Dodo, ilargian geratu da lurrera itzuli ezinik, eta haren bila joateko modua topatu beharko du idazleak. Kalitateko istorio interesgarria Berrizko Kultur Etxean.

ANTZERKIA

BERRIZ

» **'Jules Vernereren azken bidaia'** apirilaren 30ean, 17:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

» **'Hamster'** Juanjo Otero aktore iurretarraren lan berria, apirilaren 30ean 20:30ean, San Agustinen.



» **'Zugan ni' gazteen antzerki jolas gunea.** 14 eta 18 urte bitarteko gazteek parte hartzen duten antzerki lehiaketa, maiatzaren 6an 20:30ean, San Agustinen.

ELORRIO

» **'Zugan ni' gazteen antzerki jolas gunea.** 14 eta 18 urte bitarteko gazteek parte hartzen duten antzerki lehiaketa, maiatzaren 4an 21:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA

» **'Zugan ni' gazteen antzerki jolas gunea.** 14 eta 18 urte bitarteko gazteen antzerki lehiaketa, apirilaren 30ean 21:00etan, Arriola Antzokian

BERBALDIA

ELORRIO

» **Haitiri buruz Xabier Madariaga kazetariak eta Irune Martinez Searso Euskalherria taldeko kideak,** maiatzaren 6an, 19:30ean, Iturri Kultur Etxean.



ERMUA

» **Galiziako letrei buruzko jardunaldiak,** maiatzaren 3tik 9ra. Antolatzalea: Galiziako Kultur Zentroa.

BERTSOAK

IURRETA

» **Durungaldeko bertsolari txapelketako kanporaketak,** apirilaren 30ean Iurretako Oromiñoko txokoan gaueko 21:00etan.

BESTEAK

BERRIZ

» **Donejakue bidea egiteko irteera,** maiatzaren 22an 08:00etan irten eta 23an 19:00etan bueltatzeko. Izen-ematea: Berrizburu kiroldagian, maiatzaren 13a baino lehenago. Jende kopuru mugatua.

» Berrizko Udalak **pertsona nagusientzat Leioako Txakolinaren museora irteera** antolatu du maiatzaren 20rako. Doakoa da eta Jubilatuen Etxean izena eman beharko dute joateko interesa dutenek. Arratsaldeko 15:00etan BBK aurreko geltokitik aterako da autobusa.

ERMUA

» **'Txikiteokide'** Euskaraz hitz eginez lagunak egin gura dituenak apirilaren 30ean 20:00etatik 21:30era Herga Tabernara hurbildu daiteke.

DEIAK

DURANGO

» **Odola emoteko aukera,** eguenero,

16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean.

IURRETA

» **'Udaleku ibiltariak'** Urbasatik Elizondora uztailearen 1etik 14ra eta **Udaleku Finkoak** Ozaeta, uztailearen 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkartea.com, edo telefono hauetan: 665 728 213-94 620 03 42

» **Astelehenero jaiak antolatzen dituzten batzarrik** egingo dira, 20:00etan, IMIko lokaletan.

ERAKUSKETA

BERRIZ

» **Margo lehiaketako lanak ikusgai** maiatzaren 16ra arte Kultur Etxean.

DURANGO

» **'Inpresioak'** Arte eta Historia museoan maiatzaren 2rarte, Beitu Art Galleryren eskutik.

ERMUA

» **'Eskulturak eta musika tresnak'** maiatzaren 3tik 16ra, Lobiano kulturgunean.

» **'Kuba elkartasunaren uhartea.'** Udal Liburutegiko sarreran maiatzaren 1etik 15era.

IKASTAROKAK

BERRIZ

» **Doako ardo dastaketa ikastaroa** maiatzaren 10erarte, Kultur Etxean egingo da, 18:00etatik 20:00etara. Guztira, lau saio izango dira.

ELORRIO

» **'Osteopatia ikastaroa'** Caja Laboraleko erakusketa aretoan

maiatzak 8, 29 eta ekainak 5ean, 10:00etatik 13:00etara. Izena ematekoa azkeneko eguna maiatzaren 5a. Jende kopuru mugatua.

» **'Los fantasmas femeninos que me persiguen: La loca, la Bruja, La puta'** maiatzak 7, 8, 14, 15, 21 eta 22an, Emakume Eskolan. Izena emateko epea ikastaroa hasi baino bi egun lehenago amaituko da. Udaletxean eman behar da izena, bestela, postaz.

ERMUA

» **Spinning ikastaroa** ostiralero, 18:00etatik 18:50era. Informazio gehiago eta izen-ematea: Udal Kiroldegian.



» **Musika ikastaroak.** Biolina, biolontxelo, saxofoia, tronpetak... eta hizkuntza musikala euskaraz ikasi gura baduzu, Alboka musika eskolan daukazu aukera.

IURRETA

» **Reforzamiento del suelo pélvico ikastaroa** (Suspertu Fisioterapeutas taldeko Ane Miren Oyarzabal eta Amaia Lasuen): maiatzaren 10etik aurrera, zazpi saiotan. Izena emateko deitu 616 490 506 telefonora.

IPUINAK

IURRETA

» **Haurren Irakurketa Kluba** 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat apirilaren 30ean, Herri Liburutegian 17:30etik 18:30era.

JAIK

ABADIÑO

» **San Prudentzio jaiak Traña-Matienan.** **Apirilak 30,** barikua, 19:30ean **Tamega txarangak** alaitutako poteoa. 21:00etan San Prudentzio texas holdem **poker txapelketa** eskoletako gimnasioan. 23:00etan **Jaialdia** Trañabarren etorbidean: Ritmo Joven. 23:00etan musika jaialdia Traña plazan: **Ymotek, Alerta, Tres41.**



Maiatzak 1 10:00etan benjamin mailako **aretoko futbol partida eskoletan:** Traña-Matienan H.E.A. – ETK A. 10:30ean **Txistularien kalejira.** 11:30ean **Aretoko futbol partidak eskoletan:** Traña-Matienan A, B eta Nevers. 12:00etan Paella txapelketa merkatu plazan. 13:00etan **Iluntze taldearen** dantza ekitaldia. 16:00etan ugasixo txapelketa merkatu plazan. 16:30ean **Eriz magoaren emanaldia** merkatu plazan. 17:00etan San Prudentzio **pilota txapelketako finalak.** 17:30ean **Brasilgo dantza erakustaldia** Rio Samba Show taldeagaz merkatu plazan. 18:00etan **Xake erakusketa** Pino plazan. 18:00etan **Tortilla txapelketa** merkatu plazan. 22:00etan **Su artifizialak.** (Eurria edo haizea bada, ez da egingo). 22:30. **Bertsolariak frontoian:** Eñaut Uruburu, Miren Amuriza, Anjel Mari Peñagarikano, Amets Arzallus. Gai jartzailea: Eneko Abasolo "Abarkas". 23:00. Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Casting.**



anboto, durungaldeko astekaria



Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

Maiatzak 2, domeka 10:00etan txistularien kalejira. Goizean **Geu Be** taldeak txahal bat erreko du Traña plazan.10:30ean **Nekazari, artisau eta abeltzainen azoka** Traña plazan.12:00etan **Umeenda-ko ipuin lehiaketa** Traña plazan. 19:00etan **Herri kirolak** Traña plazan.

LEHIAKETA

BERRIZ

- » **Jaietako Kartel Lehiaketa** San Pedro eta Santa Isabel jaietarako irudia aukeratzeko lehiaketa. 60X40 zm-ko neurriak izan beharko ditu derrigorrez, eta ‘*San Pedro eta Santa Isabel Jaiak 2010*’ leloa idatzita agertu beharko da. Lanak maiatzaren 14rako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira.
- » **2010-2011 Eskola Agenda**. Udalak datorren ikasturterako eskola agenda argitaratzeko asmoa dauka. Gazteei zuzenduta izango denez, eskola agendaren aurreko eta atzeko azalak diseinatzeko lehiaketa sortu du gaztetxoen artean. Berrizko ikastetxean matrikulatuta dauden 12 eta 16 urte bitarteko gazteak parte hartu dezakete. Lanak banaka zein taldeka aurkeztu daitezke maiatzaren 14rako.
- » **I. Mural Lehiaketa** Berrizburu futbol zelaiaaren aurrean dagoen frontoiko horman irudi bat egiteko. Artistek maiatzaren 14rako Udaletxean zein kultur etxean zirriborroa aurkeztu beharko dute.

IURRETA

» **Aita San Miguel jaietako kartel lehiaketa** martxan da aurkezteko azken eguna ekainak 18 kultur etxean.

LITERATURA

DURANGO

» **‘Eleberri beltza**, generoaren gorakada’ hilaren 29an 19:30ean Udal Liburutegiko 3. solairuan.

ERMUA

» **XVI. Ermua Hiria literatur saria**. Ohiko narratiba eta olerki modalitateak ditu. Lanak maiatzaren 7a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago nahi dutenek herriko liburutegian bertan lortu dezakete.

IURRETA

» **‘Ibilbide literarioak’** Ikima tailerrak antolatuta, apirilaren 30ean 17:30ean, Liburutegian.



Apirilaren 30ean, 22:00etan

AUDIENCE

Audiencek berezko bidea aurkitu du ‘A Shake in calm water’ estudioko laugarren grabazioan. Era askotako rocka biltzen dute lan honetan. Horrela, musika amerikarraren sustraiak arakatu dituzte beste behin Gaizka Insunza, Hannot Mintegia, Ager Insunza, Andoni Lauzirika eta Mikel Sagarna taldea osatzen duten musikariek. Kutsu klasikoa badute ere, esperimentatzea ere gustuko dute. Audience zuzenean entzuteko aukera Plateruenean.

MUSIKA

DURANGO

» **VII Saxo-Okea** bertan 25 ikasle rock eta pop abesti ezagunak, CD-az lagunduta joko dituzte. Sarrera doan. Maiatzaren 5ean 18:30ean Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan.

» **Audience eta Manett**, apirilaren 30ean 22:00etan, Plateruenean kafe antzokian.

IURRETA

» **Musika emanaldia** apirilaren 30ean Ibarretxe Kultur Etxean, arratsaldeko 19:00etan Ulannah ‘Euskal Balkan Folk’.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **‘Millenium 3’** maiatzaren 6an, arratsaldeko 20:00etan Zugaza zine aretoan.

ERMUA

» **‘Malditos bastardos’** pelikula ikusgai, maiatzaren 6an arratsaldeko 19:00 eta gaueko 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Iron Man 2
Zuzendaria: Jon Favreau
barikua 30: 19:00/22:00
zapateria 1: 17:00/19:30 22:30
domeka 2: 17:00/19:30
astelehena 3: 19:00/22:00
martitzena 4: 20:00

ELORRIO

Arriola antzokia

El Escritor
Zuzendaria: Roman Polanski
zapateria 1: 22:30
domeka 2: 20:00
astelehena 3: 20:00

Umeendako zinea

Alicia en el país de las Maravillas
Zuzendaria: Tim Burton
domeka 2: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Pajaros de papel
Zuzendaria: Emilio Aragón
domeka 2: 20:00
astelehena 3: 20:00

BOTIKAK

Barikua, 30
09:00-09:00

- De Diego (Intxaurren 22 - Durango)

09:00-22:00

- Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

Zapateria, 1
09:00-09:00

- Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

Domeka, 2
09:00-09:00

- Campillo (Montebideo 24- Durango)

09:00-22:00

- Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)

Astelehena, 3
09:00-09:00

- Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)

Martitzena, 4
09:00-09:00

- Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)

Eguaztena, 5
09:00-09:00

- Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)

Eguena, 6
09:00-09:00

- Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

09:00-22:00

- Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren.....902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOA	Igerilekua
Matiena606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia.....946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
Iurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Taxi auzunea688 618 690		

EGURALDIA

13	18°	BARIKUA	☁⚡
Giroa oso aldakorra izango da. Zaparradak edonon eta noiznahi bota ditzake eta tarteka trumoiak ere jo dezake, batez ere, arratsaldean. Haizeak iparraldetik joko du.			
8	14°	ZAPATUA	☁
Asteburua zaparradekin eta tenperatura hotzekin hasiko dugu. Hala ere, arratsaldean ostarteak zabalduko dira. Iparraldeko haizea ibiliko da. Tenperatura maximoak jaitsi egingo dira.			
7	17°	DOMEKA	☁
4	11°	ASTELEHENA	☁
5	10°	MARTITZENA	☁

AC/DC

San Mames zelaian!



Alluitz, 3 behea • Durango
Tel.: 94 603 27 50
www.rockizarra.com

Lor itzazu dohainik AC/DC
ikusteko sarrera bi
Rock Izar Eskola eta
Anbotoren eskutik

anboto 
komunikabideak



Zozketan parte
hartzeko
sar zaitez:

www.anboto.org
webgunean

Zozketan parte hartzeko
azken eguna maiatzaren
27a izango da.
Irabazlearen izena, 28an,
eguerdiko 12:30etan
jakinaraziko da webgunean
eta anboto irratian

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Gipuzkoa nagusi Matienan

Bihar San Prudentzio pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte Matienako pilotalekuan. Gipuzkoak bederatzi ordezkari izango ditu hiru mailatan; are gehiago, gazte mailako finala lau giputzen artekoa da. Bizkaiak Rober Uriarte abadiñarra eta Anartz Ajuria galdakoztarra sartu ditu; finaleko protagonisten zerrenda nafar batek osatuko du: Olano leitzarrek.

Nagusietan Rober Uriartek eta Ajuriak Atxotegi eta Bengoetxea izango dituzte aurkari. Gipuzkoarrek bikote borrokalaria osatzen dute; atzean, itxaroten den legez Bengoetxeak agintzen badu, Atxotegik aukerak izango ditu aurrean. Bizkaitarren arma nagusiak Ajuriaren segurtasuna eta Uriarteren inspirazioa eta abilezia dira.

Kadete mailako finalean Olanok eta Tolosak Sarasti eta Imazen kontra jardungo dute. Azken hauek Euskadiko txapelkunak dira maila horretan, eta sarri erakutsi dute bikote sendoa osatzen dutela. Beste bikotearen gakoa atzean dago; 15 urte egin berri dituen Tolosa morrosko galanta (1.90 metro) eta jotzaile handia da. Nerbioei eusten badie eta atzean agintzen badu, bete-beteko partidua irten daiteke.

Lehia betea gazteetan

Gazte mailako finala Tolosaldeko Urbietak eta Arratibelek Azpeitiko Etxanizen eta Aizpurren kontra jokatuko dute. Lehenengoek "gaur egun Gipuzkoan maila horretan aurkitu daitekeen bikoterik onena osatzen dute",

Pedro Uriarte txapelketako antolatzaileetako baten esanetan. Arratibelek, esaterako, buruz buruko Cafés Baqué txapelketa irabazi zuen iaz kadete mailan.

Hala ere, Etxanizek eta Aizpurrek edozein aurkari estu hartzeko bikotea osatzen dute; iaz kadeteetan txapeldun geratu eta aurten gazteetan beste hainbeste egitekotan zetozen Gallurralde eta Jaka kanporatu zituzten finalerdietan. ■ J.D.

San Prudentzioko finalerako 12 pilotarietatik 9 gipuzkoarrak dira

24 DRT mailari eusteko lehian

Datozen asteburu bietan jakingo du DRTk mailari eusten dion ala ez. Etzi Madrilan joanekoa jokatuko dute; dena Arripausuetan erabakitzeke emaitzaren bila doaz.

25 Mendibeltz igoeraren atarian

Durango Mendibeltz taldeak lehen erregionalerako igoera lortu dezake etzi. Taldearen historia laburrean haxe litzateke goragoko maila batean jokatuko luketen lehenengo biderra.

A.Gallastegi: “Burutsu eta serio jokatu beharreko partidua da”

Promozioko joanekoa jokatu du etzi Durango Ilarduyak Madrilen



Datorren asteburuan Arripausuetan promozioko bueltako partidua jokatu du DRTk. Ana Dominguez

Anbotoko kolaboratzaile Gotzon Gomezek ezkerreko iritzi artikuluan ondo dion legez, Durango Ilarduya urteko unerik erabakiorrenean dago. Etzi Madrilgo Ingenieros Industrialesen kontra jokatu dute jaitsiera promozioko azkeneko kanporaketako joaneko partidua. Durangarrak emaitza onaren bila doaz, ondoren Arripausuetan beste 80 minutu jokatu beharko dituztela ahaztu barik.

“Maila bat gorago gabiltzala igarri behar da; gure erritmoa ezarri behar dugu”

Durangoko taldea nor-gehiagokari erritmoa ezartzen saiatuko da: “Maila bat gorago jokatzeko dugula igarri egin behar da. Gure mailan pentsatzeko denbora gutxiago izaten da normalean, eta kontaktuak bortitza goak dira. Dena da exigenteagoa. Gure erritmoa ezartzen saiatuko gara”, azaldu du Aratz Gallastegi entrenatzaileak.

Kanporaketako beste gakoetako bat partidua kontrolatzeko ahalmenean dago: “Aurretik zein atzetik joan, ezin dugu bururik galdu, bueltako partidua gertatzen dela jakinda. Burutsu eta kontzentratuta jokatu behar dugu”. Izan ere, bihar durangarren arerio izango denak, esaterako, puntu askogatik galdu zuen aurreko faseko joaneko partidua Mallorkan, eta etxean markagailua iraultzea lortu zuen.

Liga erregularreko azken partiduan Eibarren kontra erakutsi zuten seriotasuna hartzen du adibidetzat Gallastegik bihar taldeak erakutsi beharko lukeen jarrera definitzeko. Aurten partidua batzuetan “huts asko” egin dituzte, eta horrek “partiduak ez ditugula behar den moduko jarreragaz jokatu esan gura du”. Eibarren kontra, “partidu garrantzitsua zelako-edo, serio jokatu genuen, gogotik lan eginez”, gogoratu du, eta bihar jarrera bera erakutsi ezean “larri” ibiliko direla abisatu.

Baja batzuekin

DRTk baja batzuk ditu biharko partiduari begira, tartean Zorion Zabala kapitainarena. Eibarren kontrako partiduan sudurra apurtu zuen, eta ez da oraindik guztiz erreuperatu. ■J.D.

Ustekabean, Elorriok mailaz igotzea lortu dezake etzi

Emakumeetan trantsiziokoa behar zuen urtea igoerakoa bihurtzeko zorian dago Elorrio

Elorriok ligako azken partidua jokatu du domekan, etxetik kanpora Enkarterriko Neskak taldearen kontra. Irabaziz gero, lehenengo erregionalerako igoko dira. Berdinketak ere balio deizaieke, Ugeragak bere partidua irabazten ez badu.

Elorriok aurten gazte-kadete mailako taldea eta nagusienak batu ditu; biekin talde bakarra osatuta ibili dira lehen bigarren erregionalean. Beraz, teoriarik, aurtengo denboraldiak taldea egiteko behar zuen, maila eta adin askotariko jokalariekin barne lana jorratzeko.

Berdinketak ere balio diezaike, Ugeragak bere neurketa irabazten ez badu

Aitor Azpitarte entrenatzaileak, ordea, igoeragatik borrokatzeko osagai aproposak aurkitu ditu bere lehenengo urtean; osagai horietan nagusia “konpromisoa” izan da: “21 jokalaria ditugu eta entrenamenduetan ia talde osoa batu izan gara”.

Lehen erregionalean lurretakok ere asteburu honetan amaituko du liga. Mailari eustea zuten helburu, eta hori lortu dute. Lurretarek talde estuegia izan dute beste ezeren borrokan ibiltzeko. Partidu batzuetan 12 edo 13 jokalaria bakarrik egon dira jokatzeko moduan. Datorren urteari begira, taldea handitzea dute helburu.

Kopan elkarren kontra

Bestalde, hurrengo asteburuan Bizkaiko Kopa hasiko da, eta lehenengo kanporaketan lurretakok eta Elorriok elkarren kontra jokatu dute. ■J.D.

Gotzon Gomez
• Errugbi entrenatzailea



Unerik erabakiorrena

Apirila bukatzean daukagu eta apurka-apurka denboraldiko unerik erabakigarrienak hurbiltzen zaizkigu errugbiaren mundura.

Gertutasuna erreparatu, ohorezko B mailan dabilen Durango Rugby Taldeak jaitsierako promoziorako partidua du asteburu honetan Madrilen, Ingenieros de las Rozas taldearen kontra. Hurrengo asteburuan bueltako partidua jokatu da Arripausuetan. Helburua emaitza itxurosoa lortzea da, gero bueltako partiduan eta zaletuen animoak aprobetxatuz, etxean maila mantendu ahal izateko. Hainbeste izerdi eta neke bota ondoren, partidua bikoitzean erabakiko da gure taldeak non jokatu duen hurrengo denboraldian.

Europa mailako Heineken Kopa edo Txapeldunen Ligaren finalerdia ere jokatzeko dira. Lehenengo finalerdia larunbatean, 16:45ean —Toulouse eta Leinsterren artean— Toulouseko Le Stadiumean; bigarrena Donostiako Anoetan igandean, 16:15ean, Biarritz Olympique eta Munster-en artean. Beraz, aurrez aurre frantziar eta irlandarren arteko norgehiagoka. Ematen du etxean jokatzeko lagundu dezakeela, baina ikusi behar nortuek lortzen duten Parisiko finalerako txartela.

Ohorezko lehen mailari dagokionez, bi talde euskaldun ditugu jaitsierako postuetatik gertu, Ordizia eta Bera-Bera. Ordiziarrek, egoera hobean egon arren, Sevillan duten partiduan zerbait positiboa lortu beharko dute arazorik ez izateko, eta Bera Berak azken unean ihes egin nahi izango du jaitsiera postuetatik Gernika menderatuz.

Beraz, emozioz beteriko asteburuaren atarian gaude. Onenak irabaz dezala, baina nire kasuan eta pronostikoa egitearren, irlandarrak garaile ikusten ditut eta DRTk emaitza positiboa lortuko du Madrilen. Hala izan bedi!

Akordioa luzatu egin dute Tabirakok eta HiperSimplyk

Saskibaloi klubak eta supermerkatuak beste hiru urterako berrizatu dute akordioa

Hilario Perez Tabirakoko lehen-dakariak eta Carlos Espinosa eta Juan Carlos Munilla HiperSimplyko ordezkariak orain arte lotzen zituen akordioa beste

hiru urtez luzatzeko hitzarmena sinatu zuten eguaztenean.

Bai Tabirakok bai HiperSimplyk (lehenengo Sabeco) 50 urte egin dituzte aurten. Supermerkatuan Tabirakoko historia laburbiltzen duen argazki eta garaikur erakusketa ere atondu dute datozen egunetarako. HiperSimplyk Tabirakok sustatzen dituen baloreak azpimarratu zituen: “Konpromisoa, lankidetzeta... balore horiekin identifikatuta sentitzen gara”. ■J.D.

HiperSimplyk
Tabirakok sustatzen
dituen baloreak
azpimarratu zituen



Hipersimplyren bulegoetan sinatu zuten akordioa.

Mendibeltzek lehen erregionalerako igoera lortu dezake asteburuan

Taldekako ligak azken txanpan sartu direnean, hasi da igoeren eta jaitsiereren dantza. Areto futboleko, Durangoko Mendibeltzek lehen erregionalerako igoera lortu dezake lehenengoz

Bigarren erregionaleko areto futbol liga amaitzeko jardunaldi bi falta dira, eta Mendibeltz liderrak lau puntuko aldea ateratzen die Gernikako Lagunak B eta Begoñazpiri. Beraz, domekan Basauriko Ibaibide menderatuz gero, igoera matematikoki lotuta izango lukete.

Durangoko taldeak behetik gorako bidea egin du aurtengo denboraldian. Zazpi fitxaketa berri egin zituzten, baina eskas ekin zioten ligari. Ibai Ortuostek onartzen duenez, "hasieran ez genuen talde moduan jokatu".

Sei jokalaria baino ez dituzte partidurako; aulkian egongo dena asteon irten da lesiotik

Apurka-apurka, talde dinamika finkatu ahala, garaipenak heldu ziren eta denboraldiko zati handi bat goiko postuetan eman dute: "Talde moduan jokatzen ikasi dugu, eta hor dago aurtengo ibilbide onaren gakoa".

Okerrena da ia talderik osatu ezinik geratu direla azkeneko jardunaldietarako. Lesioek gogor erasan diete, eta hasiera-



Joan zen asteburuan 3-2 irabazi zioten Gu Lagunaki eskualdekoen arteko derbian. A. Dominguez

ko bostekoa osatzeko ere arazoak dauzkate. Asteburuko lehiarako sei jokalaria bakarrik dauzkate jokatzeke prest. Beraz, lagun bakarra egongo da aulkian, eta bera "orain hiru hilabete lesionatu eta oraintxe erreku-

peratu den jokalaria da". Hala ere, partiduari eusteko "ondo" daudela aitortu digu Ortuostek.

Euren atzetik doazen aurkari biek irabaziko ez balute, Mendibeltzi berdinketak ere balioko lioke. Txarrean ipini eta parti-

dua galtzen badute, datorren asteburuan Egartsuak hartuko dute, eta Egartsuak taldeak ere ez du ezer jokoan. Beraz, etzi huts eginda ere igotzeko beste aukera bat izango lukete azken jardunaldian. ■J.D.

Denbora gutxian lau garaipen Baquék, Díaz eta Tamayori esker

Denbora gutxian garaipenen zakua bete du Cafés Baqué txirindulari taldeak. Joan zen barikuan Daniel Díazek Palentziako lasterketa irabazi zuen. Díazen hirugarren garaipena da, Beasainen eta Lizarran irabazi ondoren. Bestalde, zapatuan Balmasedan Juan Sebastian Tamayok denboraldiko bere lehenengo garaipena lortu zuen San Rikillo klasikoan; mendiko eta tarteko helmugan sailkapenean ere bera nagusitu zen.

Garaipen horregaz Tamayo Euskaldun Torneoko hirugarren tokian kokatu da, 58 puntugaz; Paul Kneppers liderrak 69 ditu eta Martin Iraizozek 65. Cespa-Euskadiko Unai Elorriaga laugarren dago, 41 puntugaz. Díaz, berriz, laugarren dago 23 urtez azpiko Torneon, 25 puntugaz.

Azpeitia eta Berriatuko lasterketak falta dira Euskaldun Torneoa amaitzeko.

Bestalde, emakumezkoen Euskaldun Torneon Bizkaia-Durango taldeko Cristina Alcalde da liderra; talde bereko Dorleta Zorrilla hirugarren dago. ■J.D.

Bidezabal onenen artean jarraitzeko borrokan dabil

